

96

4 euro • 2005eko MARTXOA euskal heziketarako aldizkaria

hh

hik hasi

ELKARRIZKETA: JOSÉ GIMENO  
SACRISTÁN • EKARPENA: TEKNOLO-  
GIA BERRIAK • OMER BERTIN OKE:  
HEZKUNTZA ETA IMMIGRAZIOA •  
AMEZKETAN AHOZKOTASUNA LANTZEN





GATA

Hezkidetzak  
detaile sutilen indarra

# Adin guztietarako Mapak eta Atlasak zure eskura

## Eguneratuak



Euskal Herritik Mundura  
Euskal Herritik Unibertsora





gaia

## HEZKIDETZA, DETAILER SUTILEN INDARRA

Oraindik ere generoen arteko hezkidetzarik ez dugu lortu, ez gizartean eta ezta eskolan ere. Adibide garbiak ikus daitezke han eta hemen. Horri nola egin aurre? Proposamen batzuk badira hemen.



elkarrizketa

## JOSÉ GIMENO SACRISTÁN

Partaidek antolatutako topaketetara etorri zen pisu handia duen intelektuala. Etenik gabe eta tajuz mintzatzen da. Hezkuntza sistemari buruzko planteamenduak argi ditu.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

## HEZKIDETA, DETAILER SUTILEN INDARRA

18 elkarrizketa

## JOSÉ GIMENO SACRISTÁN

26 ekarpena

## Alizia errealitatearen herrian

Informazioaren teknologia berriak irakaskuntzaren egunerokoan

José Jesús García Rueda eta Fernando Saéz Vacas

31 kultura eta hizkuntza aniztasuna eskolan

## Omer Bertin Oke

Hezkuntza eta immigrazioa

35 berriak

40 Muga guztien gainetik... euskaraz!

## Ahozkotasuna lantzen

Amezketako Zumadi herri ikastetxea


Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguilera eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408

Fax: 943/ 372 154; [www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com); Posta Elektronikoa: [hikhasi@hikhasi.com](mailto:hikhasi@hikhasi.com); Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Erredakzio burua: Airhoa Azpiroz Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ixiar Eizaguirre Erredakzio batzordea: Mikel Estorika, Mari Kamen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Jaione Apalategi, Abel Ariznabarreta, Bego a Bilbao, Marian Bilbao, Felix Basurko Aines Dufau, Xabier Isasi, Irene Lopez-Go i, Izaskun Madariaga, Kepa Perez Urza, Lore Erriondo, Idoia Fernandez, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Juanjo Ota o eta Pruden Sodupe. Administrazioa: Arantxa Gobilu. Diseinua: TRAM Graf!k Maketazio, aurreinpresioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Zangoza ikastolako ikasleak (Hik Hasi). Aldizkari honek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren egokitasun-aitormena du. Data: 2005-II-21. Kopurua: 3.500 ale

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz baliatzen dira. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO



# hik hasik

## zure parte-hartzea

### ezinbestekoa du harpide zaitez!

### 40 euro urtean

10 aldizkari eta prezio bereziak topaketetan eta argitaratzen ditugun gainontzeko materialetan

[www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com)

**hik hasi**ren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoaz

Izena.....1. Deitura.....

2. Deitura .....Tel:.....

Helbidea .....Posta Kodea.....

Herria.....Herrialdea.....

Ikastetxea.....Herria.....

IFZ-NAN .....

**Aurrezki Kutxa edo Bankua**

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

**Sinadura**

**HARPIDETZA  
SARIAK**  
(BEZ barne)

**40 euro**

**hik hasi**

Euskal  
heziketarako  
aldizkaria

Errekalde hiribidea, 59  
Aguila eraikina 1. solairua  
20.018 DONOSTIA.

GIPUZKOA

Tel: 943/ 37 14 08

Faxa: 943/ 37 21 54



# editoriala martxoa

## Noren eskubidea lehenesten da, hor dago desberdintasuna



Elkarbizitzarako, hainbat gurasok eta ikaslek euskarazko irakaskuntza eskatzen dute, modu bakarra baita ikasleek bi hizkuntz ofizialak mendera ditzaten.

Egun hauetan EAEko hezkuntza sistema publikoan egonkortasuna galdu duten 157 irakasle itxialdia egiten ari dira. Euskara ez dutelako ikasi kendu diete betetzen zuten lanpostuetatik.

Euskararen normalkuntza prozesuan hezkuntza zutabe sendoenetako bat da. Erdara hutsezko eskola “nazionaletatik” egungo eskola eleanitzetara badago alde. Elkarbizitzarako, hainbat gurasok eta ikaslek euskarazko irakaskuntza eskatzen dute, modu bakarra baita ikasleek bi hizkuntz ofizialak mendera ditzaten. Beraz, eskaera horren arabera eskaintza egin beharko da, ezta? Ondorioz, irakasleek ez al dute gaztelania dakiten bezala, euskarajakin behar?

Xede horretarantz abiatzeko, 1998an Hezkuntza Sailak eta EILAS, ELA eta LAB sindikatuek akordio bat egin zuten, eta hiru urteko epea eman zitzaion irakasle egonkorrei lehen hizkuntz eskakizuna lortzeko. Askok ez zuten lortu, ordea. Gauzak horrela, 2001ean urtebete luzatu zitzaion epea, eta 2002an bi urte. Iaz LABek akordioa betetzeko eskatu zuen, eta hortik etorri da azken erabakia.

Sei urte horietatik hirutan liberatuta egon dira euskara ikasten, soldata eta oposoekin. Lanalditik eta sare ofizialeatik kanpo nahi adina ikastaro egiteko aukera izan dute, denek doan. Udan barnetegietarajateko aukera izan dute, matrikularen herena soilik ordainduta. Hasieran jarritako epea bi aldiz luzatu zaie, eta hala ere, ez dira gai eskolak euskaraz emateko.

Prozesu honen protagonista diren irakasleek errua Irale programari atxikitzen diote, “ez duelako euskalduntzeko balio”. Datuen arabera, lau irakasletatik hiru programa horrekin euskaldundu da. Ikasketa sistema zaila dela diote, programa hertsia duela, eta malguagoa izan beharko lukeela. Kexu dira “euskalduntzea azkarregi” egin delako.

Aztikerrek zabalduzako datuen arabera, ostera, hurrengo 18 urteetan urtero euskaldundu gabeko 14.908 euskal ikasleek amaituko dituzte ikasketak. Gehienez ikasleen % 38 euskaldunduko da egungo ereduekin jarraituta; % 62 ez da euskaldunduko. Beraz, norik begiratzen duen, “azkarregi” edo “motelegi” doa euskalduntzea.

Euskaraz irakasteko gai ez diren irakasle horiek jantokietan, liburutegietan edo bestelako lanak egiten aritu dira orain arte. Aipatutako tokietan eurentzat oraindik lekua badela diote, baina horretarako “borondate politikorik” ez dagoela. Kontua, ordea, zer da, borondate politikoa ala eskolaren proiektua? Ikastetxeak hizkuntza normalkuntza prozesuetan sartuta baldin badaude, denek bi hizkuntz ofizialean mintzatu behar dute, baita atezainek eta garbitzaileek ere.

Gauza bat da irakasle horien lan egoera, eta beste bat beraiek eskaintzen duten zerbitzua. Maiz jartzen dira aurrez aurre eskubide indibidualak eta ikastetxearen hezkuntza nahiz hizkuntza proiektua. Eta horiez gain, ikasleen hezkuntzarako eskubidea dago. Ez al da hortik abiatu behar? Ikasle horiei behar dutena eman behar zaie, eta euskaraz ikasteko zerbitzua bermatu behar zaie. Are gehiago euskarajatorrizko hizkuntza dela, gaur egun hizkuntza gutxitua dela eta normalkuntza prozesuan dagoela aintzat hartuta. Ikasleen eskubideen begietatik so eginda, zer diozu?

# kronika

Nafarroako Auzitegi Nagusiak zigortu egin du Iruñeko Udala 2004ko Langileen Lege Organikoan ez zelako kontuan hartzen D ereduko ikastetxeetan euskara jakin behar zutenik atezainek, bulego langileek eta zerbitzu laguntzaileek. ELA sindikatuak jarri zuen helegitea. ELAkoen hitzetan, auzitegiak gogorarazi behar izan dio udalari, "euskararen normalizatorako UPNk egiten duen politika, indarrean dagoen udal arauen kontrakoa" dela. Atezainekin arazoak izan dituztela salatu du Nafarroako Ikastetxeetako Zuzendarien Elkarteak, eta Auzitegi Nagusiaren erabakia bete dezala eskatu dio Udalari. Aralar alderdi politikoak, berriz, zigiluak eta tanpoiak euskaraz jar ditzala exijitu du. Eskakizuna Nafarroako Auzitegi Nagusian egin du, gogora ekarriz Nafarroako Auzitegi Administratiboaren epaia zein izan zen: Udalaren tanpoi eta zigiluek elebidunak izan behar dutela, eta ez gaztelaniazkoak soilik. Denak betetzen, badu lanik.



## Eskola Kartak eta Fillon Legeak kolokan jarri ditu euskarazko eskolak

Irakaskuntza guztiz erreformatuko duen Fillon Legea hasi dira eztabaidatzen Frantziako Legebiltzarrean. Horrez gain, Pirinio Atlantikoetako Eskola Karta finkatu behar dute irakasleen sindikatuak eta Akademia Ikuskaritzak, baina liskarretan dabilta. Bi proiektuek ondorio erabakiorrak ekarriko dituzte Iparraldeko eskoletara.

Eskola Kartan irakasle postu gutxiago ezarri nahi ditu Akademia Ikuskaritzak, eta sindikatuarekin adostu ezinean dabil. Sare publikoari eragiten dio Eskola Kartak. Bertan, eskola elebidunetako zenbait lanpostu kendu nahi dituzte, eta kasu gehienetan frantseseko postuei badagokie ere, euskarazko irakaskuntza da tratatzen dutena, bide-nabar. Esaterako, Larrainen (Zuberoa)

postua kenduz gero eskola itxi egingo litzateke.

Fillon Legea, berriz, "eskola porrotari aurre egiteko" asmotan aurkeztu du Frantziako Hezkuntza ministroak. Sistemari ekarriko dituen erreforma nagusiak hauek dira: CE1ean, 7 urterekin hasi beharko da kanpoko hizkuntza bat lantzen. Ezagutzen Heina indarrean jarri nahi du, beharrezko arlo nagusieta-ko ereduak finkatuz. CE2tik gora, 8 urterekin, azterketak egingo dira Matematikan eta Frantsesean. 12 urterekin, bigarren hizkuntza sartuko da (orain baino urte bat lehenago). 14 urterekin Brebeta azterketa izango da. Lege proposamenaren aurka azaldu dira ezkerreko alderdiak, eta sindikatuak kalitate lortzeko baliabide gehiago jartzea eskatu dute, irakasle postuak murriztu beharrean.

Fillon Legea eta Eskola Karta medio, otsailean zehar ez dira mobilizazioak falta izan. Baionan bi manifestazio jendetsu egin ziren; lehenengoan 800 ikasle bildu ziren, eta hurrengoan, poliziaren arabera, beste 800 irakasle eta ikasle; manifestariaren esanetan, berriz, 1.500 inguru ziren. Uztaritzen gurasoek eskola okupatu zuten astetan. Hiru Saretan osatzen duten Seaska, Biga Bai eta Euskal Haziak elkarteak, berriz, lehen aldiz jarrera bateratua hartzea erabaki dute, nahiz Eskola Karta sail publikoari soilik dagokion.

Ikastetxeetan maiz ikasleei ez zaie euskal kontzientziarik ematen, gazteek ez dute ikusten zergatik egin behar duten euskaraz. Euskal kontzientziarik gabe gazteek ez dute euskaraz egingo.

Gotzon Garate



Lore Erriondo izendatu dute UEUko zuzendari.

Datozen lau urteotan Lore Erriondo pedagogoa izango da UEUko zuzendari, Batzar Nagusian erabaki zuten (otsailaren 19an izan zen, Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan). Zuzendaritza taldea ere berritu zuten: Karmele Artxe historialaria, Idoia Fernandez informatikaria eta Iñaki Irazabalbeitia eta Xabier Isasi UEUko zuzendari ohiak izango dira zuzendaritza kide.

2004az balantze ona egin zuten, nahiz "puntu ilun batzuk" ere izan. Udako ikastaro gehiago antolatzeke ahalegina egin, eta batzuk ez zuten taldea osatzeko beste ikasle izan. UEUko egitura handitu da, baita lan bolumena ere, eta finantzetan autonomia da lehenbailehen lortu beharrekoa, bestela beti "diru eskean" ibili behar. Dena den, balantzea txalotzekotzat jo zuten, Euskal Unibertsitatearen eztabaidan eragi-

le asko eta asko inplikatzeko lortu baita. Datuak ere baikorrak dira: iaz 1.400 kide izatera heldu ziren, eta jardun ezberdinetan 2.300 ordu antolatu zituzten.

2005. urterako egitasmoak, berriz, hauek dira: Euskal Unibertsitateari dagokionez, helburuak hauek dira: aldeko egitura berria sortzeko baldintzak lantzea, gai horri buruzko mintegian egindako eztabaida gizarteratzea, eta eragileekin unibertsitatearen diseinu estrategikoa egitea euskal komunitate unibertsitarioan. UEUren bilgune izaera ere sendotu nahi dute, bazkideekiko kohesioa areagotu, sailak indartu eta, datu-baseei lotuta, unibertsitate guztiekin itunak sinatu. Ezagutzaren alorrean, unibertsitateko sorkuntza eta zabal-kundea euskaraz izan dadin tresnak jarriko dituzte, hirugarren zikloko programetan indar berezia egingo dute, ikastaroen kopurua %15 igoko dute, urtean zeharreko ikastaroak bultzako dituzte eta *on line* eskaintzarako giza baliabideak prestatuko dituzte. Ikerkuntza arloan mintegi bat antolatuko dute. Euskal curriculumean lan taldea egonkortzea izango da helburua. Ikas-materialetan, argitalpen kopuruari eustea (aurten 10 liburu argitaratuz), Uzta-aldizkariaren lau zenbakiak ateratzea eta harpidetzak igotzea dira erronkak. Diru kontuetan, berriz, diru poltsa bat gehiago jarri nahi dute martxan.

Ikasle zeliakoen beharrei erantzuteko, "Glutenik gabeko menuak egiteko gida" kaleratu du Eusko Jaurlaritzak. Ikastetxe guztietan zabalduko da, irakasleek, jantokiko langileek eta sukaldariak erabil dezaten. Gidan zeliakoen janaria prestatzeko aholkuak eta dieta egiteko moduak azaltzen dira. Helburua gizartea sentsibilizatzea eta informatzea da. Izan ere, informazio falta izugarria omen da. Datu fidagarririk ez badago ere, herritarren %1 zeliakoa dela uste dute adituek. Beraz, Euskal Herrian baliteke 20.000 herritar inguruk izatea gaixotasun zeliakoa, eta aldiz, horietatik 5.000 inguruk soilik dakite gaitza dutela. Hesteetako gaitza da, eta dieta egokia eginez soilik senda daiteke. Glutenak egiten die kalte zeliakoei, heste meharreko zuntzak kaltetzen dizkielako eta, ondorioz, ezin dituzte elikagai gehienak xurgatu. Glutena zereal batzuek duten proteina bat da (gariak, garagarrak eta zekaleek dute, besteak beste). Zeliakia diagnostikatuta daukatenean dieta berezia egin behar dute bizi guztian. Dieta hori prestatzeko moduak eta kontuan eduki beharreko klabeak dira, hain zuzen, gidan eskaintzen direnak. Euskadiko Zeliakoen Elkartearen eskaria izan zen gida egitea, ikasle askok jotzen baitzuen euren gaitza informazio eske.

# Hezkidetzaren detalle sutilen indarra







# Neska-mutilak elkartzea ez da hezkidetzaz



Hezkidetzaz ez da puri-puriko gaia eskoletan, nahiz egunero senarrak akabatutako emakume bat agertu telebistan. Kontzientziaz, eskubide berdinak onartzen dizkiegu emakumeei eta gizonei. Horregatik, gero eta zailagoa zaigu gure eguneroko bizitzan dagoen androzentrismoa ikustea, gure izaeraren berrantolatzea duguna.

Normaltasuna da arazoak. Erabat normala iruditzen zaigun zerbait zalantzan jartzen hastea berriz zaila da. Horretarako, zentzu analitikoak behar dira, eta distantzia hartu. Detalle sutiletan erreparatzea onen da gakoa. Zeure burua da zalantzan jartzen duzuna, ordea, eta prozesu horiek beldurra sortzen dute.

Eskola mistoa 60ko hamarkadan sortu zen Hego Euskal Herrian. Neskek eta mutilak bereizita ikasten zuten orduan arte. Eskola mistoa sortzerakoan, ordea, ez zuten planteatu ere egin zer ekar dezakeen neskek eta mutilak espazio fisiko berean elkartzea, hain justu gizartea sexista denean, eta gizontasuna emakumetasunaren gainetik dagoenean eguneroko bizitzan. Honela dio Maria Jose Urruzola hezkidetzaz aholkulariak "La educación de las niñas desde el feminismo de la diferencia" artikuluan: "Ez zen gizonetzko generoaren eta emakumetzko generoaren kritikarik egin. Ez zen nesken aldeko diskriminazio politikarik aurreikusi. Ez zen argitu pertsona bezala zer balioetan heziko ziren. Ez zen aztertu irakasgaietan transmititzen zen androzentrismoa; esaterako, historian, filosofian, zientzian... Eta ez zen kontuan hartu emakumeei egozten zaizkien roleri balio gutxiago ematen zaiela gizar-tean, gizonen roleri baino".

Eskolak lan munduan integratze-ko prestatzen dituzten ikasleak, alegia, alor publikorako, gizonetzkoen mundua izan den alor horretarako. Emakumeen generoari lotutako gaitasunak bigarren mailan geratu dira. Ana Agirre Emakundeko prestakuntza arduradunak azaltzen duenez: "eskolak bizitzarako baliagarri diren balio guztiak integratu behar lituzke, bai emakumetzko bai gizonetzko generoari atxikitakoak. Eta denei eskaini behar zaizkie, neskei eta mutilari. Hori litzateke benetan aukera berdintasunerako heziketa eskaintzea".

Hezkidetzaz zehar leerro bihurtu zen 90ko hamarkadan eta, berez, lorpen handia zena (ikasgai guztiak genero ikuspegitik birplanteatzea eskatzen baitzuen), praktikan "inoren ardura ez izatea" bihurtu da. Denek onartzen duten kontsigna bat gehiago da hezkidetzaz, baina praktikan inork heltzen ez diona.



# “Pentatasuna” hezkuntza eredua

## Pertsonaren garapen integrala helburu

Maskulinitatearen eta feminitatearen kaxoietan arakatu behar genuke, eta gustatzen zaiguna jantzi. Iku-si pertsonarentzat zein diren gaitasun positiboak eta horiek landu, kontuan hartuta gaitasun batzuetan entrentuagoak gaudela sexu batekoak izategatik, eta beste batzuetan herren gabiltzala. Generoak eta beren mugak behingoz gainditzeko bideak zabalduko dira hala.

Nortasuna zizelkatzeko tailerra izan behar luke eskolak. Geure burua ezagutzen lagundu behar liguke, eta ikusten zertan garen eder, zein den geure ahalmena, eta zer nahi dugun aldatu gudan. Eskolak harreman eredu positiboak sortzeko lekua izan behar luke, eta gatazkak konpontzeko entrenalekua.

Hori da eskola Pentatasuna izeneko korrontearentzat. Eredu horretatik lanean urteak daramatzan Bea Ugarte Gasteizko Berritzeguneko aholkulariak azaldu digu zer berritasun dakarren planteamendu horrek.

Gizartean bezala eskolan ere ikuspegi androzentrista da nagusi, eta hori hainbat alderditan islatzen da, baita edukietan ere (berez, kontzienteki hautatuak direnak). Bea Ugarteren hitzetan, “argitalexteek, asko jota, egiten dutena da nesken eta mutilen presentzia orekatu. Baina hasi arakatzeko zer ekintzatan agertzen den bakoitza edo, batez ere, erreparatu zer den agertzen ez dena”. Emakumeek historiari edo jakintza zientifikoari ekarri diotena ez da agertzen edo agertzen dena “petatxu modura” omen da. “Ez dago zeharlerro gisa planteatuta, ez dago ikuspegi horretatik kontatuta historia. Historia hau gizonen historia da, eta gainera, borrokan bizi izan diren gizon irabazleen historia”. Eskolak, beraz, neskei ez die emakumeen erreferentziarik eskaintzen, eta erreferente horiek klabeak dira identitatea eraikitzeko. “Nola baieztauko du bere burua emakume batek dio Bea Ugartek-, erreferentziarik ez badu, edo dituen erreferentziak emakume bortxatuenak edo agertzen ez diren emakumeenak badira. Zein identitate garatuko dute mutilek, dituzten ereduak menderatzaileenak badira?”

### Curriculum ezkutua: zer ez ikusi, hura ikasi

Ageriko curriculumak errepaso bat behar badu, ahalegin berezia curriculum ezkutuan egin behar litzateke, duen eragina izanda (curriculum ezkutukoak jarrera ez kontzienteak direlako, ikusten zailak). Frogatuta dago irakasleek, nahi gabe, mutilei neskei baino arreta gehiago eskaintzen dietela; denbora gehiago pasatzen dute mutilek gainean. Arrazoi bat zera da: gelatan gatazka nabarmenenak sortzen dituztenak mutilek direla. Baina, eta mutilek zergatik sortzen dute gatazka? Motiboetako bat mutilek taldean protagonista izan beharra dutela omen da, ezin dutela bat gehiago izan. “Eta berez, protagonismoa osasungarria da, jokaera natural bat da, pertsona bezala garatzeko beharrezkoa dena. Hasteko, geure bizitzaren protagonistak izan behar dugu”, azpimarratzen du Bea Ugartek. Arazoa zera da: gizartean zein protagonista eredu daukate? Nor bihurtzen dira protagonista gizartean? Ikasleek duten protagonista eredu menperatzailearena da; horregatik deitzen dute atentzioa oihuka edo errespetu faltaz;





**Bea Ugarte**

Gasteizko Berritzeguneko aholkularia

azken batean, besteen gainetik jarri. Eta lortzen dute, gainera: “irakasleentzat gairik kezkarria gela dauden ikasle gatazkatsuak dira. Nahiz eta taldean ikasle gatazkatsuak gutxiengo izan, gutxiengo horri geuk ematen diogu indarra, horien arabera antolatzen dugulako gela eta horien arabera jartzen ditugulako arauak. Egia da, gaitzetzekoak bezala, kontuan izan behar ditugula; baina beste era batean. Protagonismoa beste era batean lantzeko aukera izan behar dute”.

Neska edo mutila izan, gugandik espero dutena ere desberdina da. Adibidez, neskei arduratsua izatea eskatzen zaie (etxeko lanetatik hasita), eta desfasatzea edo neurrigabekeria ez da-

go inolaz ere onartua, kontrola beti da handiagoa nesken gain. Horrek denean du eragina (kaligrafian ere ikusten da). “Neskak arduratsukoak dira” esaten da; baina “dira” esateko ordez, “egiten ditugu” esan beharko genuke. Mutilek, berriz, espektatiba oso altuak izaten dituzte ikasketatan. Bearen hitzetan, “eredu maskulino horren barruan, gizarteak gauza guztietan lehenak izatea eskatzen die. Arkitekto, ingeniari, mediku izan behar dute; ezin dute karrera ‘normalago’ bat egin”. Kataluniako ikerketa baten arabera, espektatiba altuegiak izateagatik da, hain justu, handiagoa mutilen eskola porrota neskena baino DBHn. Karrera horietan nota altuak eskatzen dituztenez, mutilak

DBHn ikasketekin kili-kolo hasten badira, etsi egiten dute. Neskei, berriz, zerbait lortzeko ahalegin handia egin beharra izango dutela transmititzen zaie, eta nesken jarrera ere halakoxea izaten da gero. Horregatik omen dago aldean nesken eta mutilen notetan eta eskola porrotean. Ez da arrazoi bakarra izango, baina kontuan hartzekoa da genero ereduak noraino baldintzatzen dituzten espektatibak.

### Denentzat berdina, denentzat gizonena denean

Neskek eta mutilek gizartean sexuaren araberako ereduak jasotzen dute; jarrera batzuk, gaitasun batzuk dira lantzen dituztenak. Eskolak ez badu

# GAIIA

## Hezkidetzan

detalle sutilen inbarra

# G



hori kontuan hartzen, eta ez bada saiatzen kontzienteki beste eredu desberdin batzuk eskaintzen, gauzak bere horretan utzita lortzen dena zera da: gizarteko eskemasexistak erreproduzitzea edo, bestela, neskek balio, gaitasun eta jarrera maskulinoetarantz jotzea, horiek baitira gizartean baloratuak direnak eta arrakasta dutenak. “Maskulinitate hegemoniko hori zabal-tzen ari da nesken artean ere- berresten du Bea Ugartek-. Larria da. Gustatzen ez zaizkigun balio maskulino asko (per-sonaren zoriontasunerako kaltegarriak direlako) barneratzen ari dira nes-kek ere ‘berdin’ sentitzeko”.

Protagonismoa lortzeko moduan ikusten da hori (neskak ere hasi dira besteen gainetik jartzen arreta bereganatu nahian). Boterea, berez, positiboan dela nabarmentzen du Bea Ugartek, “eta botere hitza aldarrikatzen dugu gainera, egun botere hitzaren esanahia manipulatu baitago: besteen gainetik jartzearekin identifikatzen da. Eskolan boterea bere zentzu positiboan garatzeko tresnak eskaini behar ditugu, menderatze-men egitean oinarritzen diren harremanak saihesteko. Menperatzaileak eta biktimak desagerrarazteko. Botereak, maitasunaren eta orekaren eskutik joan behar du”.

Eskolaren egitekoa horixe da: harremanak modu positiboan eraikitzeko aukera eman behar die neska-mutilei (gizartetik jasotzen dituzten harreman ereduak zalantzan jarriz); eta izan neska edo mutila, positiboak diren gaitasun posible guztiak lantzeko aukera eman behar die. Pertsonaren garapen integrala da lortu behar dena. Hori da **“Pentatasuna”** izeneko ereduaren helburua: ziurtatzea neskek ere garatuko dituztela maskulinitatearen barruan dauden gaitasun positiboak. Eta eskolan lekua egitea, baita ere, feminitatearen barruan egon izan diren gaitasun positiboak eta gizariteak baloratu ez dituen gaitasun horiei, mutilei ere aukera jarriz. Beraz, neska eta mutilentzat eredu bera proposatzen du “Pentatasuna”, baina bazterrean utzi izan den eremu femeninoa berreskuratuz, eta



kontuan izanda neskak eta mutilak ez datozela motxila hutsekin eskolara, beste eragile batzuk ere badaudela, ez direla hutsetik abiatzen. Errealitate hori kontuan izan behar da eskolako jardueratan. Horregatik, zenbait ekintzatarako talde bereziak egitea beharrezkotzat jotzen dute.

### Pentatasuna ereduak zer berritasun dakar?

“Pentatasuna” hezkuntza ereduak orain arteko beste ereduak gehitzen diena zera da: pertsonaren garapen integralaren ikuspegia. Pertsona (gure kasuan ikaslea) da irakaskuntza-ikas-kuntza prozesuaren erdigunea, protagonista eta egilea. Pertsonaren garapen integrala lortu behar dela diotenean, pertsonaren bost dimentsio lantzeaz ari dira: identitatea, gorputza, gogo (edo adimena), gizartea eta emozioak (edo arlo afektiboa). Pertsonaren bost dimentsio horiek modu orekatuan eta elkarri lotuta garatu behar dira. Bea Ugarteren hitzetan, “gaur egungo hezkuntzan ez dira berdin garatzen adimen arrazionala eta adimen emozionala. Zailtasunak ditugu gorputza, afektibitatea... lantzeko. Eta justu horiek dira emakumearekin gehiago lotu diren esparruak”. Bost dimentsioen lanketa, gainera, on zaizkigun balioetatik eraiki behar da.

Irakaskuntza-ikas-kuntza prozesuan ere ekarpen berri bat dakar “Pentatasuna”ren ereduak. Aprestazioa prozesuan kontuan izan behar diren bost klabe zehazten ditu: sintonia (zeure buruarekin eta inguruarekin harmonian egotea), komunikazioa, ikasten jakitea, gatazken konponketa eta elkarbizitza. Bost klabe horiek ere modu orekatuan eta elkarri lotuta azaldu behar dute prestazioa prozesuan zehar.

### Jarrerak dira edukirik garrantzitsuenak, eta tutoretza ikasgai nagusia

“Pentatasunaren” planteamenduak praktikara dakarren iraultza handienetakoa bat hau da: curriculumean jarrerak hartzen dituela ardatz. Programa-

zioak egiterakoan ardatza jarrerak dira, eta ez kontzeptuak edo prozedurak. Zergatiak argi ditu Beak: “azken finean, galdera da zer-nolako pertsona garatu nahi dugun, zer gaitasunizatea nahi dugun. Eta gaitasunak landu ahal izateko, jarrerak dira lehendabiziko oinarria. Jarrerak bere osotasunean barneratzen direnean (sinesmena, sentimendua eta ekintza), ohitura bihurtzen dira, eta orduan duzu lortua gaitasuna”. Bearentzat, curriculumean aldatu beharreko klabea horixe da: “zeren kontzeptuetatik abiatuta, askotan absurdo batzuetara ailegatzen gara...! Kontzeptuak zehazten ditugu, gero horiek lantzeko zer prozedura erabili, eta azkenean, ez dugu jakiten jarreraren atala nola bete. Eta askotan jarrera horiek ez daukate zerikusirik erabiltzen dugun metodologia-rekin. Jarreretatik abiatzeak, berriz, metodologia eta antolamendu koherenteago batzuetara eramaten zaitu, eta baita hainbat kontzeptu zalantzan jartzera ere”.

Beste abantaila bat ere badu: jarrerak direla irakasle guztiak komuna duten edukia. Ikasgai bakoitzak bere kontzeptuzko edukiak ditu (nahiz diziplinartekotasuna bultzatzen). Aldiz, curriculumaren ardatza jarrerak badira, irakasle guztiak jardun daitezke jarrera bera lantzen ikasgai ezberdinetatik, koherentzia emanaz eskolako jardunari.

Jarrerak direnez curriculumaren ardatza, tutoretza bihurtuko litzateke eskolako ikasgai zentrala. Gaur tutoretza ikasgai “maria” da eskola askotan, ordu horretan zer egin ere ez du jakiten askok, edo oso gai puntualak lantzen dira, programazio koherenterik gabe. Bearentzat, izatez, “tutoretza da pertsonaren garapenaren ikasgaia eta beste ikasgai denek ardatz horrekin kohe-

rentzian egon behar lukete”. Egungo hezkuntza sistema erro-errotik aldatzea proposatzen du, beraz, “Pentatasuna”ren ereduak. “Jakina, gaur egun planteamendu honek utopia dirudi, edozein eredu bezala -azpimarratzen du Beak-, baina utopiak behar dira, ematen ditugun urratsek bultzatu nahi dugunera hurbiltzen edo aldatzen gaituzten jakiteko. Kontua ez da dena hantzez gorajartzea, baizik eta batzuetan beste planteamendu batekin egiten ditugun gauza berberak aprobezagariagoak eta eraginkorragoak bihurtzea”.

### Irakasleen prestakuntza: pertsona bezala garatzea

Eredu honek bi ibibilde bereizten ditu: akademikoa eta tutoretza. Ikastetxe askok aukeratzen du tutoretzatik hastea. Irakasleen formazioan planteat-

**Neska-mutilei harremanak modu positiboa erakitzeko estrategiak eman behar dizkie eskolak, gizartetik jasotzen dituzten harreman ereduak zalantzan jarriz.**



## Posible da aldatzea

Esperientzia oso polita dela nabarmentzen du Beak, “irakasleek maila pertsonalean asko ikasten dute, eta beste ziurtasun batekin doaz gelara. Neronek ere, formazio horietan ikasi dut gehien”. Halako prozesu batean sartzeko, ordea, ez daude denak prest. “Gauza hauek curriculum ezkutuan ere asko transmititzen ditugunez, nor bere burua ezagutu eta duda egin behar du, eta norberaren mementuaren eta harrapatzen duen unearen arabera, ez da beti erraza izaten”. Irakasle izateko formazio akademikoa eskatzen da, baina hezitzaile izateko bestelako formazioa ere behar da. “Irakasleak, gelara sartzen denean, ez ditu liburuak edo kontzeptuak soilik eramaten- azpimarratzen du Beak-. Kontzienteki aukeratu edo ez, irakaslea jarrera konkretu batzuekin doa gelara, balio jakin batzuk ditu, lehentasun batzuk, eta hori da transmititzen duena”. Irakasleek normalean eskertzen dute horrelako laguntza, azken finean gelako giroa, harremanak eta ikaskuntza bera hobetzen delako eta lana gusturago egiten delako.

Tutoretzan landutako planteamenduak pixkanaka kutsatu egiten dira. Ikasgai diferenteetan hasiak dira metodologia kooperatiboak sartzen, baita ebaluatzeko beste modu batzuk ere. Gelaren edo ikastetxearen antolamendua ere lantzen denez tutoretzan, planteamendu horiek gero eragina dute beste arloetan; esaterako, bizikidetzat batzordea sortzen da tutoretzan (gatazken kudeaketaz arduratzen dena), baina beste ikasgaietan ere jarduten du. Bearentzat, “askotan kontua ez da egiten dena aldatzea, baizik eta egiteko modua aldatzea”. Txoko pertsonala norberak egin duenaz hausnartzeko, lasaitzeko eta erabakiak hartzeko baliabide bezala erabil daiteke, edota zigor txoko bezala. Bata autonomia eta botere pertsonala garatzeko lagungarria da eta bestea, berriz, meneratzen egite harremanak indartzeko. Beak argi du: “Eskuartearen dugun erronka eskolako jarduna birziklatzea da”.

tzen dutena zera da: ikasleekin tutoretzan egingo duten prozesu bera bizi izan behar dutela aurretik irakasleek. Hala, formazioan lehenik planteamendu teorikoa azaltzen da eta ondoren tutoretza saioak programatzen dira, aurrez irakasleek esperimentatuz. Irakasleak ziur sentitu behar du jardueratan. “Askotan haurrei eskatzen dieguna, batez ere sentimenduak tartean daudenean, ez dela hain erraza jabetzen dira. Orduan beste jarrera eta espektatiba batzuekin joaten dira gelara”. Formazioan irakasle denek parte hartzea komeni izaten da, ez tutoreek bakarrik. Esperientziak esaten baitu tutoretzan egiten diren planteamenduek poliki-poliki beste arloetan ere bere eragina dutela (hasieran metodologian eta harremanetan nabaritzen da, batez ere).

Normalean programazioa egiterakoan elkarbizitza lantzetik hasten dira. Eredu honek elkarbizitza autonomia planteatzen du, pertsonarengan oinarritutako elkarbizitza, alegia, eta ez kanpoko arau estandarretan oinarritua. Arauak taldetik bertatik atera behar dira, talde horren beharren arabera. Arauak sortzeko abiapuntua ez da moralki zer den zilegi eta zer ez, baizik eta, errespetua erreferentea izanik, kide bakoitza zer jarreraren aurrean sentitzen den ondo eta zeren aurrean gaizki. Hartara, politikoki politikak diren arauak ez dute lekurik.

Gaizki sentiarazten gaituzten jarrerak aztertu egiten dira gero, jarrera horiek zergatik sortzen diren eta zerk sortzen dituen ikusiz. Eta halako egoeratan beste zer egin daitekeen lantzen dute. “Ez da nahikoa ‘ez da jo behar’ esatea; haur gehienek badakite ez dela jo behar, baina mementoa heltzean jo egi-

ten dute, askotan ez dakitelako besterik egiten. Zergatik jotzen duten jakiten lagundu behar diegu (agian erabat amorrarazita zeudelako esango dute), eta hurrena berriz amorratzen direnean zer egin dezaketen pentsatzen lagundu behar zaie. Eskolak hor eskaini behar dizkie estrategiak”. Kontua ez baita norberaren sentimenduak ukatzea edo kentzea, baizik eta ezagutzea eta beste era batera bideratzea. Irakasleek horrelako egoeratarako denon artean eraikitako jarraibideak behar dituzte, eskolak izan beharko lukeen helburua lortzeko: norbera bere buruarekin eta gainontzekoekin ondo sentitzea. “Jarreraren birziklatzea” deitzen diote horri. Gatazkak bideratzen entrenatu egin behar du gela osoak estrategia errealak sortuz.

Irakasleen formazioan ere egiten da prozesu hori guztia. Irakasleen artean, ikasleen artean bezala, gatazka gehienak komunikazio faltagatik edo antolakuntza arazoengatik sortzen dira. “Irakasleei galdetzen diezu zerk sentiarazten dituen gaizki, eta klaustroetan gehienek iritzirik ez emateak sortzen diela deserosotasuna aipatu ohi dute. Zergatiak aztertzen hasita, batzuetan kontua da aurretik jende horrek ez duela informaziorik izaten, eta hausnartu gabe ezin duela iritzirik eman. Arazo hori antolakuntza aldatuta erraz konpon daiteke”. Komunikazio arazoetan, berriz, gizonak eta emakumeak duten komunikazio estiloa sartzen da jokoan. “Emakumeak askotan gaizki sentiarazten dituen zera da: ondokoa ez dela jabetzen bere arazoez, ez dela jabetzen zer gertatzen zaion. Kasu honetan emakumeengan askotan sortzen dena topatzen dugu: nahiak eta asmoak adierazteko asertibitatea gutxi landua dutela.”



Beatriz Moral eta Begoña Petxarroman  
FARAPI aholkularitza zerbitzuko kideak

## Nor dago erdian, nor bazterrean? Espazioa, topikoen eszenaratzea

Irten jolaslekura. Ia eskola denetan espazio gehien hartzen dutenak futbol zelaia eta baloiarekin aritzeko jolasak dira. Espazio hori mutilek betetzen dute. Kontua ez da zabalera soilik: futbolak garrantzi handia du gure gizartean, eta aktibitate hori mutilek egin ohi dute. Neskek, berriz, espazio gutxiago hartu ohi dute, eta askotan espazio horiek ez dute identitatearik: muga zehatzik gabeko eta izenik gabeko lekuetan jolasten dute (bazterretan, eskilaratan, korridorretan...). Euren jolasak ere ez dira jolas bezala ikusten: neskek hor “daude”, edo “euren gauzetan ari dira”, baina ez zaie identitate bat ematen, badirudi ez direla ezertan ari. Jolas horien garrantzia eta botere simbolikoa ere ezberdina da, beraz.

Espazioan islatzen da nola gauden sozializatuak gizonak eta nola emakumeak: topikoa dirudi, baina emakumea espazio pribatu-itxietan, eta gizona espazio publiko-garrantzitsuetan. Neskek sozializatuta daude ez esploratzera, leku ezagunetan gelditzera, “kontuz, ez irten horra” esaten zaie; mutiletan, berriz, “normala” espazio zabalean korrika ikustea da, mugitzea.

### Mugan egotea

Neskek patroï baten arabera moldatzen ditugu, mutilak beste patroï baten arabera. Eredu eta aukera gehiago ez eskaintzeak bi min sortzen ditu: batetik, sexu bakoitzak gaitasun eta izaera batzuk soilik lantzen dituela, eta beraz, pertsonaren hainbat eremu findu gabe

gelditzen direla gizon-emakumeengan. Eta bestetik, hain definitua dagoen eredu horretatik ateratzen direnek, sufritu egiten dutela, “arraro” etiketa jartzen baitzaie. Eta ezberdin izateko beldurra, “normaltasunetik” ateratzekoa, denok dugu. Futbola gustatzen ez zaion mutila, sozialki hilik dago; 12 urtetik aurrera dantza egin nahi duela esatea etxean arazo bihurtzen da. Horiek sufritu egiten dute, eta asko. Begoña Petxarroman antropologoaren hitzetan, “ez dugu ezberdinak izateko aukerarik. Eta aukera falta horrek sufrimendua sortzen du mutileengan ere”.

Badira, ordea, salbuespen batzuk: ezberdinak izan eta taldean ondo hartzen dituzten pertsonak. Esaterako, jolas-orduan beti neskekin ibiltzen den mutila, eta beste mutilek ere apreziatzen dutena; edo futboleko mutil dene-

kin jokatzeko uzten dioten neska, eta beste neskek ere estimatzen dutena. Kasu horiek dira ikertu beharrekoak Beatriz Moral antropologoarentzat, “arazorik gabe mugan egoteko formula aurkitu dutelako. Pistak eman ditzakete, ‘norma’tik ateratzeko zerk funtzionatzen duen jakiteko”.

### Zer egin

Zaila da jakitea. Neskek ezin dira behartu espazio gehiago betetzera edo futboleko aritzera, eta mutilei ere ez zaie zertan eskatu eskilaratan jolasteko. Beatrizen eta Begoñaren ustez, egin behar den gauzatarik bat da neskek betetzen dituzten espazioei identitate tinko bat ematea, eta espazio eta aktibitate horiei garrantzia ematea.

Iaztik ari dira Hernaniko ikastetxeekin lanean generoaren inguruan, Udaleko Berdintasun Sailak proposatuta. Espazioari dagokionez, lehendabizi ikasleen artean datuak jaso dituzte: eskolaren mapa marrazteko eskatu diete, espazio bakoitzari izena jarri. Zer espaziotan egoten diren esan behar dute, zein gustatzen zaizkien, zein ez, eta zergatik. Eta, oso garrantzitsua dena: espazioan zer aldatu nahi duten galdetzen zaie. Inkesta guztiak jasota, neskek eta mutilek zer erantzuten duten aztertuko dute. Ondoren irakasleekin hausnartuko dute zer egin. Argi dute irtenbideak bilatzea denen lana dela. “Guk arazoak kokatzen ditugu -dio Begoñak-, baina gero denok pentsatu behar dugu irtenbidea zein den”.

**Neskek betetzen dituzten espazioei identitate tinko bat eman behar zaie, eta horko jolasei ere duten garrantzia onartu behar zaie.**



**Marije Apodaka**  
EMAISIA elkarteko kidea  
Urtxintxa Eskolako genero arduraduna

Jostailuen katalogoek azaltzen dute ondoen, modu oso bisualean, bizitzako lehen 10 urteetan norantz bideratzen ditugun neskek eta norantz mutilak. Jaio eta 3 urtera arteko jostailuak oso neutroak dira, haurrak oraindik ez duelako sortu ez sexu identitatearik, ez genero identitatearik. 3 urterekin badaukite zein den nesken gorputza, zein mutilena; sortu dute sexu identitatea. Geroxeago, 6 urterekin, sortuko dute genero identitatea (gorputz hori izateagatik gizarte honek zer eskatzen dien jabetzen dira). Arauak ikasten doaz, eta norekin eta zerekin identifikatu ikasten dute. Hala, 3-6 urte bitartekoen jostailuetan kolorea, formak, espazioaren erabilera... definitzen hasten da. "Jostailuen funtzioa horixe da: kokatzea eta identitate hori sortzen laguntzea", gaineratzen du Marije Apodakak, EMAISIA elkarteko kide eta Urtxintxa Eskolako genero arduradunak.

6 urteko neska soka bat eskainiko zaio katalogoetan (espazioaren erabilera sokak berak mugatzen du); mutilari, berriz, patinetea (espazio zabala eskatzen duena). Alegia, ekintza eta jarraia ezberdinetan trebatzen direla neskek eta mutilak. Joko sinbolikoetan neskek panpinekin imitatzen dute eza gutzen dutena; elkarrizketak eta egoerak oso "errealak" dira, eta sentimenduez hitz egiten dute. Mutilek, aldiz, autoekin edo borrokako panpinekin asmatu behar dituzten elkarrizketak, ez dira eguneroko bizitzakoak, telebistan ikusten dutenarekin lotuago daude: "zaratak, kolpeak, beti agresibitate horren inguruan sortu behar dute" dio Marijek.

## Panpinari ostikoa Aisian, begiraleen harremanak eredu

### Larrosa, ze kursia

"Okerrera ez da jostailuak eta jolasak bereiztea -Marijeren ustez-, baizik eta bakoitzari ematen zaion balioa. Esparru edo jarduera batzuk balio gehiago dutela ikasten dugu, eta hierarkia sortzen da". Neskek mutilena gehiago baloratzen ikasten dute, futbola sukaldetara jolastea baino "garrantzitsua" eta "dibertigarriagoa" dela transmititzen zaie, eta "larrosa, zer kursia den!" entzungo dute emakumeen ahotan ere. Errematerako, hor dute Coca-Colaren iragarkia: mutilari txikitatik panpinak soilik eman, eta koxkortzean hor ageri da panpinen buruekin futboleant, modu agresibo batean, gainera. Marijeren hitzetan, "mezua eskandaluzkoa da. Ostikoa, panpinari soilik ez, mundu sinboliko horri guztiari ematen dio!".

Nahiz mutilena gehiago baloratu, neskek nahiago izango dute panpinekin jarraitu, hori delako ezagutzen dutena eta hori delako menperatzen duten kodea; gainera, beste neskekiko identifikazioa behar dute. Nerabezaroran, berriz, estereotipoaren urratzea dator. Hori guztia baztertzeko eta mutilak imitatzen saiatzen dira, baloratua dagoena egiten, azken batean. Builan hasten dira, bultzaka, irainak erabiltzen... "Jarrera hori ez dugu espero neskenengan, eta arraro, bortitz, itsusi... egiten zaigu -deskribatzen du Marijek-. Hala ere, nahiz eta nesken mundua baztertzeko saiatzen diren, jada guztiz barneratua dute genero identitatea".

### Nik ez dut jolasten

"Nik ez dut jolasten" esan eta bi-hiru neska armailetara doaz esertzera, talde osoak futbol zelaietan segitzen duen bitartean, baloi jokoren batean. Begira-

leak sutan, "neskek ez dutelako inoiz parte hartu nahi". Ez gara jabetzen, ordea, taldean proposatzen diren jolasak ia beti espazio handian mugitzeak direla, baloiarekin edo harrapaka, bultzaka; alegia, mutilak entrentuagoak dauden jolas motak eta espazioak direla ia beti talde osoari proposatzen zaizkionak. "Berdin du 'ona' ezizatea, garrantzitsuena parte hartzea da" esaten zaie gainera, eta hala da, baina beti dira neskek talde osoaren aurrean lotsaren sentsazioari aurre egin behar diotenak.

"Begiraleentzat hori da errazena, gainera. Bestela, espazio itxi batean, eserita, hizketan egotea proposatzen badugu, mutilekin liskarra eta gauzak apurtzea baino ez dugu lortzen. Neskek, berriz, zelaiaren bazterrean ez dute trabarik egiten, eta besteek jolasten segi dezakete". Marijeren hitzetan, larriena da neskek zer ikasten duen memento horretatik: "autobaztertzeko ikasten du, eta gainera, normala dela ikasten du; bera bazterrean geldituta ere jokoak berdinduz segiko duela. Pentsa hori bizitzarako zer irakaspen den!". Ekintza bat planifikatzerakoan, beraz, aurreikusi egin behar da, inor baztertzeko gero, zer egin pertsona horrekin eta zer egin gainerakoekin. "Akaso beste denak euren kasa jolasean utzi eta begiraleak pertsona horrekin hasi beharko du beste zerbaitean jolasten, naturaltasunez. Hori ere bada pertsona horri garrantzia emateko eta bere burua baztertzeko ez uzteko modu bat".

### Nesken koadrilak, mutilen koadrilak

Neska-mutilak nahasteko hainbeste ahalegin eta gero, hezitzaileak oraindik harritu egiten dira, ikusita, aukeran





tzuk proposatu behar dira, neskek gus-tuko izango dituztenak, eta mutilek es-pazioa beste modu batera erabiltzen eta neskekin partekatzen ikasiko dute-nak. “Batzuetan ezin da ekintza baka-rrekin dena lortu, eta pausoka egin behar da prozesua, neskek eta mutilak bereiziz. Hezkidetzan segregazioa zenbait mementotan eta estrategikoki, erabili egin behar da”.

### Begiraleen arteko harrema-nak eredu

Begiraleak eredu dira haurrentzat, helduen errepresentazioa dira. Horre-gatik, zer harreman eredu ari diren transmititzen aztertu behar dute: begi-raleen artean nola hitz egiten duten, no-la banatzen dituzten rolak eta ardurak. Sarri, begirale mutilek betetzen dute “begirale graziosoaren” papera, talde handian eurei entzuten zaie gehiago, mendian bidea irekitzen doazenak dira (motxila handiena hartuta), eta zuzen-dari papera betetzen dute.

Elkarteetan eta erakundeetan ere, egitura aztertu egin behar dela azpima-rratzen du Marijek; ikusi ardurak nola dauden banatuta, eta funtzio denei eman balioa eta errekonozimendua. “Zeren askotan, erratza pasatzea zigor moduan planteatzen dugu, eta ardura horri ez zaio baliorik ematen, edo fun-tzio ‘garrantzitsuagotzat’ hartzen da udal ordezkariarekin hitz egitea”.

Egunerokotasuna aztertzea da ga-koa. EMAISIA elkarteak eta Urtxintxa eskolak eskuliburu bat aterea dute (*Jarduera Hezkidetzailerako eskulibu-rua*), Emakunde Saria jaso zuena 2001an. Praktikarako orientabide ze-hatzak eskaintzen ditu, eta interesa du-tenen eskura jartzen dute.

utziz gero neskek neskekin osatzen du-tela taldea eta mutilek mutilekin. “Be-harra da -azaltzen du Marijek-, haurrek identifikaziorako bere berdinen talde-an egoteko beharra dute, munduan ko-katzeko, sozializatzeko. Eta gizarte ho-netan oraindik genero ezberdintasuna dago, nagusien esparru guztietan ere generoa oso inportantea da”. Bimundu ezberdin direla eta kode ezberdinak erabiltzen direla ikasten dute. “Hori neskena da” transmititzen zaie, “beraz, ez da nirea, eta hori nik egiten badut ni-re identitatea galduko dut”; eta beldu-rrasortzen da. Gainera, Marijeren hitze-tan, “dagoen harreman eredua enfren-tamenduarena da; gauza bat baloratze-ko bestea mespretxatu beharra dago. ‘Ni hau naiz’ esateko, ‘zu zara txarra, zu zara itsusia’ esan behar dute”.

Nesken koadrilak eta mutilenak non egon ohi diren ikusteak ere asko esaten du. Neskak 12 urterekin plazan, taldean elkartuta, eserita egon ohi dira. Mutilak, aldiz, bolatokietan, eta baka-rik ere sartzen dira barrura, taldearen zain egon gabe. Gerora, mutilek tabe-rnarako pausoa ematen dute. Neskek tabernara joateko taldearen babesa be-har izango dute gero ere. Bestetik, iker-keten arabera, mutilek aisialdirako denbora gehiago dute, eta kalean gehiago egoten dira etxean baino. Nes-kek aisialdiko denbora gehiena etxean egiten dute.

### Alternatibak planifikatu

Hezitzaileek jolasen bat proposa-tzen dutenean neskek eta mutilak bate-

ra aritzeko, haurrek ez dute nahi izaten, ez neskek eta ez mutilek. “Logikoa da- Marijek dionez-, sortzen den deseroso-tasuna, antsietatea eta enfrentamendua oso bortitza delako. Ez dute nahi, ez da-kitelako espazio hori eta kode horiek erabiltzen, edo ikusten dutelako espa-zio horretan lehendik mutilak daudela eta horra sartzen badira enfrentamen-durako izango dela”. Horregatik, ekin-tza bat planifikatzean, aurreikusi egin behar da zer gertatuko den (“baloia da-go, beraz, mutilak gerturatuko dira”), eta alternatibak bilatu.

Eskola batean hala gertatu zen: jo-laslekuan mutilek hartzen zuten espa-zio gehiena, baloiarekin. Neskek arku-petan jolasten zuten. Irakasleek espa-zio zabal hori neskek eta mutilek erabil-tzea nahi zuten. Eta baloia erabiltzea debekatu zuten. Zer gertatu zen? “Mutilek zekitena egiten segi zutela, alegia, ostikoka, dena txikitu arte. Neskak ez ziren arkupestatik atera, gustura zeude-lako han, euren jolasetarako ez zuten espazio gehiago behar”. Lehen dagoe-na kenduta, ez dira jarrerak aldatzen. Espazio horretarako beste ekintza ba-

GAIA  
Hezkidetzan  
detalle sutilen inbarra

G

# josé gimeno sacristán

Valentziako Unibertsitatean  
katedraduna



Gauzak gustura eta gogoz  
kontra ikas daitezke, eta ikasketak  
ez du zertan gogoz kontrakoa  
izan behar



Nik, pedagogo edo pedagogian afizionatu gisa, uste dut kalitatearen gaian prozesu pedagogikoen analisia dela funtsezko elementua. Kalitatea proiektuaren arabera epaitu behar da batez ere, funtsezko kriterioa da sistema batek nola funtzionatzen duen ikusteko

Jos Gimeno Sacrist n le- tra larriz idazteko moduko izena da. Hezkuntza munduan onarpen eta pisu handiko inte- lektuala. Kritiko sakona eta zorrotza. Kritikatu ere bai. Sari asko jaso ditu bere lan profesionalagatik eta ekarpe- nengatik. Agian, gustukoena eta politena iaz jasotakoa: Aragoiko Gobernuak eman zion Hezkuntza Domina.

Aragoiko herrirka txiki ba- tean jaioa, Teruelen ikasi zuen eta han jardun zen Lehen Hez- kuntzako irakasle lanetan. Handik Zaragozara joan zen goi mailako ikasketak egite- ra. Madrilgo Unibertsitate Complutesean irakasle izan zen. Gero Salamancan, eta gaur egun Valentziako Uniber- tsitateko katedraduna da.

Hezkuntza Ministeritzan ere aritu zen. Ministeritzatik makropolitika kudeatzea ez zuen gustuko, ordea, eta ardu- rahura utzita gelara itzuli zen.

Liburu mordoska idatzi di- tu eta ziur oraindik ere gehia- go idatziko dituela.

**Azkenaldian asko hitz egiten da kalitateaz. Zergatik hartu du horrela- ko gaurkotasuna?**

Duela 10 urte ez zen erabiltzen. Orain modan jarri da, batez ere merka- tuaren eta kompetenziaren teorienga- tik, eta kontrolari eta aurrekontu publi- koen gutxitzeari lotuta agertu da. Izan ere, eskolan diru gehiago gastatzeak hobekuntzarik ez dakarrela ikusi da, gastu gehiago eta inoiz betetzen ez den zaku beltza baizik.

Gustura ez gaudelako ere sortu da. Hezkuntza sistemak historikoki eta poli- tikoki hitz emandakoa ez du bete, eta horrek kontent ez egotea ekarri du. Horri eskola uztea, eskola porrota, errepi- kapenak, absentismoa eta ikasleen asaldatzea gehitzen badiogu, egoera kezkarria da. Eta horri kalitate falta esaten zaio gaur egun. Krisi sentsazio bat dago, hezkuntzan urteak darama- tzagunontzat berria ez dena.

**Hezkuntza sistema krisian dago- ela esan nahi al duzu?**

Ni kontziente naiz 60ko hamarka- daz geroztik hitz egiten dela krisiaz eta kalitate faltaz. 1969an idatzitako obra ospetsu bat badago, *Hezkuntzaren krisi mundiala*, eta bertan planteatzen den hipotesia hau da: hezkuntza siste- mak ez direla betetzen ari uste zen fun- tzioak.

LOGSE ezarri zenean, eskuinak PSOE salatu zuen lege inozo bat eginez eskolatze urteakigo zituela eta kalitatea jaitسي esanez. Hori entzunda, norberak



bere baldintza intelektualetan oinarrituta zentzuzko ariketa bat egiten badu zera pentsa dezake: nola da posible eskolatzea handituz kalitatea jaistea? Zer esan nahi du horrek, eskolara zenbat eta gehiago joan orduan eta kalitate gutxiago lortzen dela? Orduan, eskolatzea gutxituz kalitatea handituko al dugu?

Gertatzen dena da funtzionamendu normaleko eskemak ukitzen dituen edozein mugimendu kalitatearen defizit bezala ikusten dela.

### **Kalitateaz ari gara, baina denok gauza bera ulertzen al dugu kontzeptu horrekin?**

Ez. Argot bat erabiltzen dugu, denok ulertzen duguna inork ulertzen ez duelako. Real Academia Española de la Lengua honela dio: "calidad se refiere a aquellas condiciones propias de los sujetos por los cuales se puede decir que algo es mejor o peor que otra cosa". Hori bai dela ezer ez esateko modu dotorea! Hau da, "que el buen vino es vino bueno, que el Dios bueno es buen Dios, o que el alumno bueno es buen alumno" esatea bezala da; ezerez esatea, alegia.

Kalitateaz hitz egitean denak ados daude, hain justu inork ez dagoelako ados bakoitzak ulertzen duenarekin. Gertatzen dena da kalitatearen adiera guztiek ez dutela neurri berean inposatzen, eragiten edo espekulatzen. Horregatik, nire ustez kalitatearen hizkuntza oso arriskutsua da, ez baitu zehazten zertaz ari den. Denak ados daude planteamenduan, baina gero inork ez du eztabaidatzen zer dagoen azpian. Inork ez du gaur egun ondo jan nahi kalitatezko janariekin? Denek. Orain, zer ulertzen da kalitatezko menutzat? Bakoitzak bere modura ikusten du.

Kalitateak nahastu egiten du, hala-beharrez. Batzuentzat kalitatea denek hizkuntza klasikoak ikastea da. Oposizioko alderdiei entzuten diet eta, gobernuko alderdia edozein delarik ere, kalitatea emaitzak hobetzea da. Gobernuari entzuten diet, eta kalitatea inbertitu den dirua da. Mundu guztiak du kalitatea ahotan, baina ez dira ados jartzen.



Nik esan ohi dut, kalitatea dela eskuinak duen modu lotsagarria hitz egin behar duenaz ez hitz egiteko. Kalitatea erabiltzen du aukeraketa, zorroztasuna, ahalegina... erabili beharrean. Hemen gauzak bere lekuan jarri behar dira; aukeraketa denari aukeraketa deitu; aukeratzeko eta ebaluatzeko erabiltzen diren pauten funtzionamendu zorrotz eta drakoniarrari bere izenez deitu; eta ez bete ahoa kalitate hitzarekin.

### **Zuretzat zer da kalitatea hezkuntzan?**

Nik, pedagogo bezala edo pedagogian afizionatu bezala, uste dut kalitatearen gaian prozesu pedagogikoen analisia dela funtsezko elementua. Uste dut hori dela kapitulu zentrala. Ez da horretaz asko hitz egiten, ez delako erraza horren barruan sartzea eta horretaz eztabaidatzea. Hala ere, Europako Batasuneko zenbait nazioarteko txostenetan hasi dira hezkuntza prozesuak aztertzen.

Lehendabizi proiektuen gaineko kalitateaz hitz egin beharko litzateke, narratibei eta filosofiei eman lehentasuna. Narratiba diodanean orientazio orokorrak eta ideologiak esan nahi dut. Hau da, kalitatea proiektuaren arabera epaitu behar da batez ere, funtsezko kriterioa da sistema batek nola funtzionatzen duen ikusteko. Gertatzen dena da horrek ez duela adierazlerik. Hots, nik daukadan filosofia kalitate adieraz-

Irakaslea  
hezkuntza  
sistemaren  
funtsezko  
elementua da,  
baina bai sistema  
ona denean eta bai  
txarra denean.  
Beraz, egungo  
hezkuntza  
sistemaren  
kalitatea ez bada  
ona, irakasleek  
zerikusia izango  
dute. Daukagun  
egokieraren  
kolaboratzaile gara  
guztiok.

Lehen  
Hezkuntzako irakasleek  
bultzagarri kultural bat  
behar dute, eta  
Bigarren  
Hezkuntzakoek busti  
pedagogiko bat, bestela  
ez dugu hezkuntza  
hobetuko.

Nik aita gisa  
sufritu egin dut egungo  
pedagogiarekin.  
Eskolako edukietan  
dagoen  
zentsugabekeria hain  
da izugarria, non hobe  
baiten horietaz ez hitz  
egitea

le bat da, baina ezin dut zenbatu edo adierazi.

Argi dago gizarte konplexu, moderno eta anitzean hezkuntza proiektuak askotarikoak direla, eta beraz, kalitatearen hautemateak ere hala izango dira. Zer da garrantzitsuagoa gure gazteen-tzat Lanbide Heziketaren alde lan egitea ala formazio orokorraren alde lan egitea? Zer da hobea akademizismo absurdu baten alde lan egitea (gaur egungo eskoletan duguna) ala hiritarren alde lan egitea? Hezkuntza proiektua orientatzen duen filosofia edo erretorika kalitatearen zati bat da. Horregatik, niri egokiagoa iruditzen zait orain ezarri nahi den proiektua, solidarioagoa, berdintzaileagoa eta kalitate moral gehiago duena. Ibilbide bereziak eta errebalida dituen proiektuak ikaslea pekatari gisa tratatzen dute.

**Europako Batasuneko zenbait txosten hezkuntza prozesuak aztertzen hasi direla aipatu duzu. Nolakoak dira prozesu horiek gaur egun?**

Adibide bat jarriko dut. PISA txostenak horrelako galderak egiten ditu: "Matematikaren zailtasunak baldin badi-tuzu, zure irakasleen aldetik arreta indibidualizatua jasotzen al duzu?". Estatu espainiarreko laginaren % 48k soilik erantzun zuen baiezkoa. Ehuneko horrek OCDEko azken postuan jartzen gaitu. Beraz, zera ondorioztatzen dugu: ikuspegi pedagogikotik begiratuta, oso txarrak direla Matematikaren ira-

kaskuntzan dauden prozesuak. Hizkuntza, artea, geografia, historia edo beste edozeinena egingo balitz, gauza bera gertatuko litzateke.

Prozesuen logikan eta etikan sartuko bagina, kalitatearen analisisan sartuko ginatke, eta praktika hobetzeko neurriak hartu beharko genituzkeela ondorioztatuko genuke. Zeren, PISAk batez bestekoa 485 dugula esateak ez dit ezertarako balio, salbu Hong Kong baino okerrago eta Grezia baino hobeto gaudela esateko. Kontsolagarria da, baina ez da arazoak hobetzeko balio duen analisi bat. EAeko hezkuntza Galiziakoa baino hobea dela esateak ez du estatuko politikan eragiten eta ez du balio arazoak konpontzeko, tokatzen zaion sailburua argazkian hobeto edo okerrago ateratzeko baizik.

**Kalitatearen gainean egiten diren neurketek ez dute baliorik, orduan?**

Diagnostikatzen diren elementuak diagnostikatuta, sistemaren oso azaleko ezagutza lortzen da, eta ez du berau hobetzeko esku hartzeko aukerarik ematen. Zentzu horretan, errazena emaitzetan gelditzea da.

Baina emaitzak prozesu baten fruitu dira, eta prozesua bera zalantzan jartzen ez bada, emaitzek ez dute ezertarako balio.

Gainera, emaitzak zuzenak eta zeharkakoak izaten dira. Eta hezkuntza emaitza garrantzitsuenak epe luzekoak eta askotan zeharkakoak dira, neur-





tu ezin daitezkeenak. Esaterako, ezagutza erabiltzeko gaitasun kritikoa, hiritarren zentzu kritikoa, kolaborazioa, pertsona onak egitea eta abar epe luze-  
ra neurtzen dira, eta gainera, ez dakigu emaitza hezkuntzarena den edo ez.

Orduan, neurketa horiek eskaintzen dizkiguten adierazleak erabilita eta horien azpian zer dagoen ikusi gabe kalitateaz hitz egitea, hezkuntza sisteman gertatzen ari denaz funtsik gabeko ezagutza edukitzea esan nahi du.

### **Zein ikuspegitatik hitz egiten duzu zuk kalitateaz?**

Zazpi alderdi aipatzen ditut nik kalitateaz ari naizenean: jakituria eta kultura; sozializazioa eta hiritarrak; garapen pertsonala; lanerako hezkuntza; informazioaren gizartea; kalitatea eta merkaturia; eta ezagutza aditua.

### **Gaur egungo eskolak txarrak direla esango al zenuke?**

Nik ez dut uste lehen baino txarragoak direnik. Ez dut uste gazteak lehen baino okerrago hezita daudenik. Gertatzen dena da baldarrak, bihurriak eta ezjakinak lehen baino gehiago ikusten direla gaur egun. Hau da, hezkuntza sistemak gehiago erretiratzen du errealtatea, kameraren objektiboaren enfokea handiago da orain. Ondorioz, sistematik at eta sistemaren barruan zegoen kalitate eza agerian gelditu da.

### **Krisia eta kalitate eza aipatu ditugu. Egoera horren ardurarik edo kezkarik ba al dago?**

Sindikatuak ez dute kalitatearen in-

guru eztabaidarik egiten. Berrikuntza pedagogikoko mugimenduetan 70eko eta 80ko hamarkadan izan ziren eztabaidak, baina gaur egun oso eragin txikia dute. Eta hezkuntza sistemaren funtzionamenduaren barruan ez dago kezkarik. Adibidez, unibertsitateko ikasketa planen eztabaidetan irakasle bakoitzari zenbat lan tokatzen zaion eztabaidatzen da, ez barruan gertatzen dena. Europako proiektuaren inguruan ikasle bakoitzak zenbat orri irakurri behar dituen eztabaidatzen da, baina ez da eztabaidatzen zer gertatzen ari den unibertsitatean eta zein diren erabiltzen diren metodo nagusiak. Lehen mailan hasten den ikasleen % 35-40k utzi egiten ditu ikasketak eta denek normaltzat jotzen dute, unibertsitatea selektiboa delapentsatuz. Inork ez du galdetzen zergatik ikaratzen den ikasle bat unibertsitatean iristean eta zergatik uzten duen.

### **Zein erantzukizun dute irakasleek hezkuntza sistemaren osasunean?**

Azken urteetan ikasleak errudunak, ganberroak, ikasi nahi ez dutenak... direla zabaldu da, eta irakasleak biktimak direla. Hizkuntza hori azaleratu da. Irakaslea hezkuntza sistemaren funtsezko elementua da, baina bai sistema ona denean eta bai txarra denean. Beraz, egungo hezkuntza sistemaren kalitatea ez bada ona, irakasleek zerkusua izango dute. Daukagun egoeraren kolaboratzaile gara guztiok.

Nik uste dut autokritikatzen duen langileria behar dela. Lanboralak ez dien errebindikazioak ere onartzen dituzten sindikatuak behar ditugu. Eskakizunak denontzako kalitatean zentra daitezela, eta ez sistemaren erosotasunean. Hau da, lanbidearen etika eguneroko praktikan, politikan eta pedagogian sartu beharko genuke.

### **Zer esango zenuke irakasleen prestakuntzaz?**

Lehen Hezkuntzako irakasleek bultzagarri kultural bat behar dute, eta Bigarren Hezkuntzakoek busti pedagogiko bat, bestela ez dugu hezkuntza ho-

betuko. OCDEko herrialdeko Lehen Hezkuntzako irakasleen artean, estatu espainiarrekoak dira formazio gutxien dutenak; besteen ikasketen batez bestekoa baino heren bat baxuagoa da. Memento honetan PSOE 240 kreditura igo nahi zuen Lehen Hezkuntzako irakaslegaien formazioa unibertsitatean. Filtratutako paper batek dio Errektoreen Batzordeak 180an utzi duela berritua. Horrela ez goaz inora.

Herrialde honetan defizit kultural bat dago. Gazteen garapen ekonomikoak posible egiten du motor bat gidatu ahal izatea, baina ez dute zaratarik gabe gidatzeko hezkuntzarik. Bostere ekonomikoa kulturala baino handiagoa denean, "hortera" indizea igo egiten da.

### **Zer iritzi duzu eskolan erakusten diren edukiei buruz?**

Nik aita bezala sufritu egin dut egungo pedagogiarekin. Eskolako edukietan dagoen zentzugabekaria hain da izugarria, non hobe baiten horietaz ez hitz egitea. Gaur egun dibulgazio zientifikoa erakargarria da, baina eskolako zientziak formulazio huts izaten jarraitzen dute. Gaur egun hizkuntzen ikasketa teknologia berriei aurreratu den heinean, eskolan itzulpenak eta hiztegiak erabiltzen dira oraindik. Nire alaba berokiarekin baino ez zen joaten neguan ingeleseko akademiara. Eskolara, berriz, arkatza, ezabagoma, koadernoak, testu liburua, hiztegia... eramaten zituen. Akademian ikasi zuen, noski.

Horrez gain, gaur egungo antolaketak, 'ikasgai bat = ordu bat = irakasle desberdin bat' eskema taylorizazio burugabebat da eta izugarritzko gora beharak sortzen ditu. Laborategiko saio bat ezin da ordubete eman. Aipatutako eskemarekin batez besteko erritmora egokitzen direnak bakarrik ateratzen dira ondo. Azkarragoak direnek denbora galtzen dute besteek baino lehenago bukatzen dutelako, eta mantsoagoak direnek etxean bukatu behar dute egitekoa. Horrek diskriminazioa dakar, etxean denek ez dituztelako baliabide berdinak.

Bide  
askotariko  
autobidea behar  
dugu denek aurrera  
jarrai dezaten;  
batzuek azkarrago  
eta beste batzuek  
mantsoago, baina  
inori bere bidea  
izorratu  
gabe.

**Edukiez gain, eduki horiek irakasteko modua ere ez da egokia, orduan, zure ustez.**

Begira, ni ez naiz gogoratzen aljebra, baina badakit triangelu baten hipotesuna kalkulatzeko makil baten itzala, kanpandorrearen altuera edo erai-kin baten itzala kalkulatu. Sinoaz eta kosenuaz ahaztu naiz, baina inoiz ez dut ahaztuko nola kalkulatu zen munduko meridioaren luzera Eratostenesen adibidearen bitartez (hesola bat jarri zuen Sienan eta beste bat Alexandrian, eta bien arteko angulu diferentzia ikusita distantzia kalkulatu zuen). Jendeari galdetzen badiozu zergatik den esnearen tetra-brika laukia edo zergatik aukeratu duten erleek hexagonoa, ez daki. Jendeak ez ditu planteatzen eguneroko bizitzako problema matematikoak. Haur espainiarren % 30 inguruk 14 urterekin ez daki Europako Batasuneko moneta sistema erabiltzen. Nola liteke hori? Gela batean euroak maneiatzen hastea eta ariletik ateratzea... uf! Gehiegizkoa da!

Baina matematikaren zentzua arazorik gabe alda daiteke. Horrek, noski, unibertsitateko sistema osoaren mutazioa eskatzen du, eta baita berrikuntzei laguntzeko sistema kurrikulurra ere, zeina gobernuak ez duen batera bultzatzen.

Nik uste dut edukien aldaketa ezinbesteko baldintza dela hezkuntza sistema aldatzeko. Egia da bizitzan gauza batzuk ezinbestean ikasi behar direla, baina modu askotara eta gustura ikas daitezke. Gauzak gustura eta gogoz kontra ikas daitezke, eta ikasketak ez

du zertan gogoz kontrakoa izan behar behar. Ikasleek gustura ikasi ohi dute, eta adinean aurrera egin ahala motibazioa jaitsi egiten da. Zergatik? Ikasteko moduagatik.

**Ikasle guztiek ez dute erritmo eta gaitasun bera. Horri aurre egiteko eskola inklusiboa, aniztasuna... aipatzen dira. Zer behar da zure ustez?**

Herrialde honetan daukagun arazoa kultura pedagogiko falta da erritmo askotarikoak, eskola askotarikoak, erritmo anitzeko talde heterogeneoak eta abar edukitzeko. Matematikako ordu bat ez da egokia ikasleen gaitasun aniztasuna lantzeko. Aldiz, goiz osoa matematikari eskainiz gero, irakasleak taldeak egin ditzake ikasleen erritmoen eta beharren arabera.

Bide askotariko autobidea behar dugu denek aurrera jarrai dezaten; batzuek azkarrago eta beste batzuk mantsoago, baina inori bere bidea izorratu gabe. Onak, bikainak, azkarrak ez du markatu behar mantsoaren, baldarraren edo gaintu ez duenaren erritmoa. Haatik, gaintu ez duenak, mantsoak, pobreak, baldarrak ere ez du markatu behar gaitasuna duenaren erritmoa. Justiziaren zentzuak inplikatu behar du minimoak eskaintzea gutxien ahal duenari, baina maximoak zaildu gabe gehien ahal duenari.

Autopista hori egiteak erabateko aldaketa dakar hezkuntza sisteman. Maila anitzeko irakaskuntza deituko litzaike. Orain arte ez dugu lortu injustiziarik gabeko modu koherenterik. Eskuinak itxuraz ibilbide berdintzaileak







ezarritz konpondu du arazoa, baina sakonean desberdintzaileak dira. Ibilbideak ez dira ibilbideak, sakontasun desberdineko tunelak baizik: batzuk lur azpitik joaten dira, beste batzuk zerrutik, eta beste batzuk lur gainetik.

### **Teknologia Berrien erabilpena zer da, ona ala txarra eskolarentzat?**

Erabiltzen dakitenentzat onak izango dira, eta erabiltzen ez dakitenentzat alferrikakoak. Teknologia Berriek ezaugarri bat dute: baldintza intelektualaren jarraipena direla. Hizkuntza bat menperatzen duenarentzat hobeak dira. Ezagutza menperatzen duenarentzat hobeak dira. Ingelesa menperatzen duenarentzat hobeak dira. Hori dena menperatzen ez duenarentzat, existituko ez balira bezala.

Nire iritziz, asko hobetuko dute hezkuntza erabiltzen baldin badaukigu. Okerrena da gizarte hau azkarrentzat dela, eta azkarrak soilik baliatzen direla azkartasunez. Horregatik, Teknologia Berriak desberdintasun soziala ikaragarri handitzen ari dira.

Bestalde, eskolan interesgarriak iruditzen zaizkit dena azpikoz gora jartzen dutelako. Internetek ez du edukia ikasgaitan banatzen. Imajinatzen al duzue eskolarentzat nolako deskalabrua den Google-k edukia ikasgaika banatuta ez ematea? Internet eguneko 24 ordutan kontsulta daiteke, ez irakasleak n. orrialdea ireki esaten duenean soilik. Internetek ez du iraintzen edo ez du zerrorik jartzen. Internet udanzein neguan kontsulta daiteke. Internet zuhaitz baten azpian edo mendi puntan kontsulta

daiteke. Azken finean, Internetek irakaskuntza-ikaskuntzaren leku fisikoa aldatu egiten du.

Halere, argi ibili behar da; Internetek txorakeria asko esateko aukera ematen du, eta aukeratzeko kriteriorik ez duena ito egin daiteke. Internetek ez ditu bereizten ergelkeria eta jakituria. Eta jakituria eduki behar da zer den ergelkeria eta zer den sana bereizteko. Hori izango da arazo berria: aukeratzeko kriterioak edukitzea, ez dadin izan Google guregatik aukeratzeko duena.

Labanari boterea ematen diona erabiltzailea da, eta teknologia berriekin gauza bera gertatzen da. Nork ematen dio erabilpena teknologiarri? Erabiltzaileak. Eta zerk ematen du erabiltzeko gaitasuna? Kulturak.

Horrez gain, beste gai garrantzitsu bat dago: teknologia berrien iraungitze data dela-eta, ez da bideragarria izango hezkuntza sisteman ezartzea. Etengabe aldatzen dira eta berehala zaharkitu. Beraz, azkeneko herriko azken eskola informatizatzen dutenerako, lehenengo zaharkitua egongo da.

### **LOCEn ondoren, orain PSOE gobernuan egonik eta hezkuntza sistemen egoera ikusirik, posible ikusten al duzu itun sozial zabal bat?**

Ez. Batetik Elizaren eskakizunak daude erlijioa ikasgai ebaluatua izan dadin; bestetik aukeratzeko askatasuna eskatzen da sutsuki; eta azkenik, ibilbide selektiboak. Oso urrundaude ideiak dira, eta oso zaila ikusten dut adostasun bat lortzea.

Adostasuna lortzeko, lehendabizi hezkuntzaren inguruko eztabaida bat behar dela adostu behar da, Frantzia bezala (nahiz eta badirudien irtenbidea oso eztabaidatua izaten ari dela). Eztabaida handi bat behar da, eta hori abiatzeko arazoetan ados egon behar dugu. Ez dezagun erabili diagnostikoa elkarri erasotzeko, alderdi politikoek egiten duten bezala. Ituna oso zaila ikusten dut eskuineko alderdi politikoak daukan esplikazio sistema baldin badauka (datuak eta egia ezkutatu) eta gobernuan dagoen ezkerrek hain anbizio txikia baldin badauka.

Teknologia berriak onak izango dira erabiltzen dakitenentzat, eta erabiltzen ez dakitenentzat alferrikakoak. Halere, argi; Internetek txorakeria asko esateko aukera ematen du. Arazoa aukeratzeko kriterioak edukitzea izango da. Labanari boterea erabiltzaileak ematen dio, eta teknologia berriekin gauza bera. Nork ematen dio erabilpena teknologiarri? Erabiltzaileak. Eta zerk ematen du erabiltzeko gaitasuna? Kulturak.



## Alizia errealitatearen herrian

### Informazioaren teknologia berriak irakaskuntzaren egunerokoan

Teknologia berriek betetzen duten lekua eta bete beharko luketena aztertzen dira artikulu honetan. Ezin da ahaztu horien erabilpena hezkuntza ereduaren araberakoa izango dela; irakasteko modua nolakoa, teknologia berrien erabilpena halakoa.

---

Jos Jesús GARCIA RUEDA  
Madrilgo Carlos III Unibertsitateko irakaslea

---

Fernando SEZ VACAS  
Madrilgo Carlos III Unibertsitateko irakaslea

#### Sarrera: teknologia eta aldaketak


Seymour Papertek dioenez (Papert, 1993), eskolaren eta ikaskuntzaren inguruan “ordenagailuek beraien ahalmen guztia erakusten dute, dena aldatzeko aukera ematen dutenean”. Azken urteotan ordenagailuak eta beraien hedapen naturalak, sareak, unibertsitateko eta eskoletako ingurunea hartu dute. Ondorioz, “dena aldatzen” ari al da? Gure irakasleen irakaskuntza praktikak modu sakonean aldatzen ari al dira?

Unibertsitate tradizional baten eguneroko jarduerari gainbegiratu bat emanez gero, ezetz ondoriozta dezakegu; irakaskuntza praktikak, orokorrean, orain dela ehun urteko irakasle eskolako espirituari eta irakasleen “jakintza kutxa” paperari eusten dio. Non gelditzen dira gaur egun ditugun komunika-

zio aukera askotarikoak? Zergatik ez dira praktikan jartzen teoria pedagogiko berriak, orain, teknologiak aukera ematen duenean? (Larios, 1998). Errudunen bat bilatu behar badugu, eta ez da bakarria izango, teknologiak berak eta irakaskuntza instituzioen moteltasunak banatu beharko dituzte ardurak.

Interesgarria da erreparatze irakaskuntzarekin zuzenean loturiko aurrerapen teknologiak oso mantso sartzen ari direla irakaskuntza sarean; era bere-

an, itxura denez, “hezkuntza teknologia” modu harrigarrian ari da aurreratzeko. Agian azkartasun hori bera da egokitzapena zailtzen duena: egonkortasun faltak eta etengabeko aldaketak instituzioak eta irakasleak urundu egiten ditu hain aldakorrek diren lanak onartzetik, hauek erabat aprobetxatu aurretik aldatu egin beharko bailirateke. Gehiegizko aldakortasunak “bukatu gabeko lanaren” itxura eman dezake, erabat “fidagarria” ez den zer-baitena.



Noski, dena errazagoa izango litzateke unibertsitateek urteetako mugikortasunik ezaren zamarik edukiko ez balute. Instituzio horiei ez zaie erraza suertatzen ezarrita dagoen irakaskuntzarekin haustea kognitiboki eraginkoragoak direnekin ordezkatzeko, baina "historiaren zamarik" jasan gabe.

Gauzak horrela, paradoxa batekin egiten dugu topo: moteltasun eta inertzia handia duen sistema batean sartu nahi dira etengabeko aldaketa azkarak bizi dituzten elementu teknologikoak. Egoera horren aurrean, galdera bat sortzen da: nola lotu bi kontzeptuak, teknologia eta unibertsitatea, irakaskuntza prozesuak garatzeko eta teknologia berrien praktika aprobetxatzen duten irakaskuntza sistemak lortzeko? Bestela esanda: unibertsitate berriaren testuinguruan, zein da informazioaren teknologiaren berrikuntzek duten funtzioa?

Webaren gorakadarekin halako joera iraultzaile bat etorri zen: Internetek ordura arte ezagutzen genuen unibertsitatea desagerraraziko zuela uste zen. Gaur egun, hasierako gogo haiek itzaltzen hasi dira, irakaskuntza instituzioek oldar berritzaileari aurre egiten asmatu baitute. Ondorioz, uste baino aldaketa txikiagoak sortu dira. Horrela, badirudi, ezeren iraultza egiten baino gehiago betiko praktika tradizionalei sostengua ematen ari direla. Orain, profesional askok Microsoft PowerPoint erabiltzen dute gardenkiak sortzeko, beraien ikasleekin posta elektronikoz komunikatzen dira eta eskolak ematen dituzte bideokonferentzia bidez. Baina gardenkiek hor jarraitzen dute, irakasle-ikasle harremanak nahiko eskasak dira eta eskolak magistralak dira oraindik.

Agian iritsi da uea inguruan dugun olde teknologikoari abantaila ateratzeko; eskakizun iraultzailerik gabe, mobilizazio dei handirik gabe baina konformismo mugiezinean erori gabe (Garcia, 2000). Agian "erdibideko teknologjak" indartzeko garaia da, hau da, gaurko irakaskuntza eskemekin guztiz hautsi gabe eta mundu elektronikoan erabat lotu gabe, poliki aitzinatzeko au-

kerak ematen duten beste eredu batzuk, "isileko iraultza" bat sortuko duten teknologjak, azken finean.

Orain, gure instituzioetan gehien erabiltzen diren irakaskuntza praktikak aztertzen hasi behar dugu, praktika horiek garatzen lagunduko duten teknologjak sar ditzagun poliki-poliki. Beterie informazioaren teknologia berrien eta praktika "pedagogiko berrien" bateratzea bilatuz eta, noski, bateratze horren eszenatokia eguneroko irakaskuntza izango dela pentsatuz.

### Hezkuntzak izan beharko lukeena eta benetan dena

Oraingo unibertsitateko prestakuntza egoera nahiko urrun omen dago egokiena izatetik. Masifikazio gaitasunak jota dagoela esan ohi da, eta irakasleen eta ikasleen arteko urruntasunak eragozten duela ikaskuntza prozesuaren garapen egokia.

Asko sinplifikatuz eta lehen hurbilketa bat eginez, hiru egoera posible edo prestakuntza kasu irudika daitezke:

- **Egoera ideala:** ideala deskribatzea beti izan da konplexua, are gehiago prestakuntzaren testuinguruan, non "idealari" dagozkion ezaugarriak beti diren eztabaidagarriak. Hala eta guztiz ere, normala da interesa duten gehienek egoki ikustea irakasle-ikasle prestakuntza eredu bat idealtzat hartzea. Jakintzaren igorlearen eta hartzailearen artean harreman estua egotea izan-



go litzateke ideala. Kasu horretan, irakasle ikasle horrekin egongo litzateke etengabe, uneoro pertsonalki erantzunez, elkarrekin aurkitu beharreko jakinturia hori bilatzen, irakasleak ere ez baitaki dena. Beraz, elkarrekin aurkitzen duten bidea da, partekatua, non irakaslearen kezka bere ikasle bakarraren gidari izatea den. Hori bai, ikaslea bakar-tu gabe: irakasleak berak eskaini behar dio ikasleari bere egoera berean dau den beste batzuekin harremanetan jartzeko aukera. Horrela, bere prestakuntza aberastu egingo da eta modu sozial eta kolaboratzailean ikasiko du. Azken finean, eredu minimalista da, gure gizarte industrializatuko mekanismoekin zerikusirik ez duena. Izan ere, egungo ereduan, industrian bezala aplikatzen dira unibertsitatean ere muntaketa katea eta produktibitatearen garrantzia. Sarritan garrantzi handiagoa ematen zaio ikasle kopuruari



**“Agian “erdibideko teknologiak” indartzeko garaia da, hau da, ez gaurko irakaskuntza eskekin hausten dutenak eta ezta mundu elektronikoan erabat lotzen dutenak ere, baizik eta poliki aitzintzeko aukera ematen duten beste eredu batzuk, “isileko iraultza” bat sortuko duten teknologiak”.**

eta azaldu beharreko (ez irakatsi) edukien kantitateari irakaskuntzaren kalitateari baino.

- **Egoera hobea:** egoera idealak ez dira erabilgarriak, ikusteko eta aurkitzen jarraitzeko gidak baizik. Ideala bilatzea porrotera bideratua dago hasi baino lehenagotik, izan ere, ideala eskuraezina da definizioz, nahiz eta aurkitzea goraiatzeko modukoa eta beharrezkoa izan, dudarik gabe. Irakaskuntza eta ikaskuntzari buruzko teoria berriak eta pedagogiako azken aurreapenak egungo prestakuntza ereduak ordezkatzeko saiatzen dira. Modu horretara, ikaskuntzaren teoria konstruktibistik hartu dute indarra, eta prozesu hori ikaslearen garunean gertatzen den pixkanakako ikaskuntzaren eraikitze bezala ulertzen da. Horrelako ingurune batean, irakasleak “jakintza kutxa” bat izateari utzi eta laguntzaile izatera pasatzen da, hau da, esandako eraikuntza prozesu horretako gidari da. Horretarako, bereziki interesgarria den zeregina dauka: lan kolaboratzailea izatea. Horren bidez, ikasketa talde lanean egiten

da eta aurkikuntza prozesua partekatu egiten da. Azken batean, irakasleak eta ikasleak negoziatzen duten testuingurua izango litzateke, nahiz eta inplizituki izan; bien artean erabakitzen dute zer ikasiko duten eta noraino iritsiko diren. Irakasleak ikasleek ezagutza bilatzea bultzatzen du, eta horretarako ikasleak euren interesen arabera mugitu daitezkeen uzten du. Ikasketa prozesu aktibo eta positiboa bihurtzen da, ikaslearen jarrera pasiboa alde batera utzita: ikasle bera da bere ingurunean begiratzen duena bere interesen eta ezagutzen arabera, betiere irakasleak gidaturik. Irakasleak ikaslearekin partekatzen du abentura hori eta buruz ikastea oinarritzen den ikaskuntzatik urruntzen saiatzen da, horren ordez ikaskuntza asoziatiboa ezarri (Cabrero, 1995).

- **Egoera erreala:** tamalez, gaur egungo unibertsitateko prestakuntza eredu nahiko urrun dago aurreko horietatik. Unibertsitateko ikaslearen funtzio bakarra, gelan sartzen den lehen egunetik, azalpenak ulertzea eta etxean gogor ikastea da (batzuetan buruz ikasiz eta besteetan prozeduren bidez). Izugarriko tenperaturei nahiz ur faltari aurre egiteko, desertuko tuaregak beraien bizitza ekintza gutxienera jaitziz eta beraien zainak zabalduz arroken antza hartzen saiatzen diren bezala, unibertsitateko ikasleek segituan ikasi behar dute belaki bihurtzen etorriko zaien informazio guztia xurgatzeko. Informazio horren iturriak arbela, gardenkia eta gida batzuk izaten dira. Ikasleek ekintza praktikoa oso urria izaten da teorikoarekin konparatuta, baita karrera tekniko eta zientzietakoetan ere. Irakaslea gelan sartzen den izaki bat da. Ordu pare batez hitz egiten du eta berriro irteten da. Kasu gehienetan, sartzen denean bezain ezezaguna izaten jarraitzen du irteten denean ere. Bakarkako ikasketa bultzatzen da, eta horrek lanpara baten konpainian amaigabeko ordu kopurua esan nahi du. Eta hori guztia arbelaren aurrean hitz egiten duenak banatutako edukia irensteko. Eredu hori, azken finean, egunerokotasunak eta sormen faltak biziaturakoa da,

eta bertan nolabaiteko mekanizazioa sumatzen da, bai irakaskuntza lanetan eta baita ikasleen jarreretan ere. Askotan ikasleek ez dute interesik erakusten ikasterakoan jarrera aktiboagoa hartu behar dutenean.

Beti ez da horrelakoa izaten egoera erreala, noski. Toki guztietan dago irakaskuntza sortzaileagoa eta eraginkorragoa egiteko prest dagoen jendea. Baina, askotan, euren ahaleginek aurre egin behar izaten diote aurrez ezarrita dagoen unibertsitateko makineriari.

Behin irakaskuntza-ikaskuntza egoeren arteko bereizketak planteatuta, galdera interesgarri bat luza dezakegu: zein da teknologiaren funtzioa horretan guztian? Jakina, erantzuna oraingo egoera hobetzea izango da. Hau ez da, egia esateko, asko argitzea. Zuzenago litzateke honako hau adieraztea: informazio teknologietatik espero dena da hezkuntzaren gaur egungo egoerara, hobea den egoerarantz gerturaztea, eta zergatik ez, idealerantz. Behin nahi den egoera bat identifikatu ondoren, horrelako gai konplexu batek eskatzen duen zuhurtzia guztiekin, teknologiaren funtzioa egoera horretan planteatzen diren oztopoak gainditzea izango litzateke. Nola? Agian irakaslearen ordezkoko baliabideak ezarri, gero eta aniztasun handiagoa duen ikasle masari erantzuteko. Agian irakaslearen gaitasuna gehituz bere lana eraginkorragoa izan dadin. Agian biak.

Hala eta guztiz ere, prestakuntza prozesuak aldatu ezina ez da arazo teknologikoa. Beraz, teknologiak bakarrik ez du konpontzeko ahalmenik izango. Erdi Arotik gaur egunera arte Mendebaldeko gizartearen garapen kulturalaren ondorioa den inertzia erakusten dute oraingo unibertsitate egiturek. Horregatik, ordenagailuek, hipermediak eta gainerako informazio teknologiek erreforma abian jarriko dutela pentsatzea optimismo gehiegi edukitzea da.

Edonola ere, ehunka urteko egitura unibertsitarioetan aldaketa motor izateari utzi gabe, aldi berean funtzio konterbadoreagoa hartu beharko du tek-

nologiak, egun dauden irakaskuntza prozedurak hobetzeko tresnak eskaintzeko, hasieran bederen euren izatea aldatu gabe.

### Hezkuntza idealerako teknologia eta hezkuntza praktikorako teknologia

Gauzak horrela, gaur egun bi dira bereziki informazioaren teknologiak har ditzakeen funtzioak. Alde batetik, aldaketa motor bihurtu behar dute, komenigarriak diren hezkuntza teoriak praktikara eraman ahal izateko. Aldaketa horiek, halaber, ez dute aplikazio praktikoa esanguratsurik izan orain arte (ikuspegi horrekin batera sartzen dira teoria horien perfektzionamendua eta berriak agertzea, bide berrietan oinarrituta). Komeni da gogoratzea teoria berrien bilatzea ez dela helburu bat, behar bat baizik, prestakuntza prozesuetan eraginkortasuna lortu nahi bada behintzat). Beste aldetik, orain zabaldua dauden hezkuntza prozesuak hobetu beharko lituzke informazioaren teknologiak. Luzaroan eutsiko zaiela pentsa liteke, eta beraz, hori ikusita, oso erabilgarria izango da eraginkorragoak izatera bideratzen den edozein lan.

Funtzio horien bikoiztasunak banaketa posible bat planteatzera bultzatzen gaitu. Bata prestakuntza prozedura berriak sortzera zuzendua, eta bestea oraingo prozeduretara hobeto egokitzten dena. "Hezkuntzarako teknologia idealaz" hitz egin liteke "hezkuntzarako teknologia errealean" aurrean.

"Hezkuntza idealerako" teknologiaren ereduak irakaskuntzaren prozesu kolaboratzaile batera zuzenduta dauden guztiak dira. Eredu horiek konstruktibismo sozialean oinarrituak daude, non ikasleak prozesuaren ekimenean esku-hartze handia duen (eta beraz, erantzukizuna ere bai). Laburbilduz, inplikaturako guztien arteko komunikazioa errazten duen teknologia guztia. Gaur egungo teknologiatik hartutako adibide batzuk hauek literateke: "txat"-a, posta elektronikoa, eztabaida foroak, posta zerrendak, konferentzia elektronikoa (bideo konferen-



tzia eta audiokonferentzia barne) eta abar. Beste zenbait tresna ere aipatu beharko lirake, ikasketa filosofia konkretuak praktikara eramateko erabiltzen direnak. Esate baterako, Torontoko (Kanada) Unibertsitatean garatutako CSILE sistema (<http://csile.oise.utoronto.ca/>). Oro har, Internet eta gaineko ordenagailu sareak irakaskuntza-ikaskuntza estiloetan malgutasun gehiago eskainiko duten elementu bezala ikusten dira (Britain, 1999), eta ikasleari protagonismo handiagoa ematen diote. Azken finean, benetako erronka da curriculum kontrolaren aldekoentzat (Borrás, 1997).

"Hezkuntza errealean" prozesuak nahiko desberdinak dira "hezkuntza idealarekin" alderatuta. Informazio transmisioa alde bakarrekoa da, igorletik (irakaslea) hartzailera (ikasleak). Kasu honetan, hasteko, "hezkuntza errealerako teknologiatzat" har liteke informazioa aurkeztea errazten duen oro. Horrek zuzenean multimedia garaiz eta baita soinu zatietekin, bideo sekuentziekin, animazio interaktiboekin eta abarrekin osatutako tutoretza sistemara ere. Aurkezpen sofistikatu horiek erabilgarriak dira gela baten testuinguruan (mementoan osatzeko edo aberasteko). Baina gehienbat material tradizionala ordezkatzeko erabiltzen dira, horiek testua eta irudiak baino ez baitituzte (modu

### Bi dira bereziki informazioaren teknologiak har ditzakeen funtzioak: aldaketa motor izatea, eta zabaldua dauden hezkuntza prozesuak hobetzea.

horretara irakasle "lokutorearen" "ordezko" papera bete dezakete).

Gisa honetako teknologiak hezkuntzan nahikoa erabiltzen diren edo, alderantziz, erabilera eskasa den baloratu gabe, egia dena zera da: errazagoa dirudi irakasle batek bere lana multimedia euskarriekin sofistikatzea, bere irakaskuntza filosofia errotik aldatzea baino. Beraz, nahiz eta informazioaren teknologiak irakaskuntzan arrazoi praktikoen sartu, ez da alboratu behar tutoretza multimedien sorkuntzako ikerketa.


Baina egia da baita ere, ez dela oso zuzena teknologiaren inguruko muntai hori guztia antolatzea aditu askok zalantzan jartzen duten irakaskuntza eredu iraunarazteko. Ez dauka horrela izan beharrik ere. Irakaskuntza prozedura tradizionalarekin hautsi gabe, posible da salto kualitatibo bat ematea

# “Errazagoa dirudi irakasle batek bere lana multimedia euskarriekin sofistikatzea, bere irakaskuntza filosofia errotik aldatzea baino”

eta berrikuntza teknologikoak aprobetxatuz aldaketa txikiak sartzen hastea.

Adibidez, ikasleen aurrean informazioa aurkezteari utzi gabe, aurkezpen horien oinarriak aldatzen has gaitzke. Esate baterako, multimedia elementuak sartzera soilik mugatu gabe, tutoretza hipermediak egin daitezke sarean ibiltzeak dituen onurak aprobetxatuz. Horrek irakaskuntza irekiagoa egiteko aukera emango du dena aurretik finkatuta eduki gabe, eta poliki-poliki ikasleari askatasun gehiago emango dio bere interesen araberako informazio iturriak bilatzeko.

Azken batean, tutoretza hipermediak gehiago aztertu beharoko lirateke (García, 2001, García, 2001 (2), García 2001 (3)), batez ere diseinuaren aldetik. Teknologia honen abantailak aprobetxatuko eta eragozpenak gutxituko dituen eredu (edo metodologia) diseinatu behar da tutoretza hipermediak egite-rakoan. Baina batez ere, prestakuntza-ren teknifikazioan aurrerapausoa eka-riko duena, gaur egungo irakaskuntza eredu errotik aldatu gabe.



## Ondorioak

Mende honetan, gure gizarteak eskatzen dituen hezkuntza apustuak hazten ari dira. Masifikazioa, kalitatea... arazoaren ispilu diren ereduak dira eta horiei aurre egin behar diete herri “garatuetako” oraingo hezkuntza sistemek.

Askorentzat, informazioaren teknologia oso baliagarriak dira arazo horiei irtenbidea bilatzeko. Horregatik, instituzio komunitarioak eta administrazio nazionalak teknologia horien hezkuntza aplikazioak bultzatzen saiatzen dira.

Hala ere, garatzeko ahalegin horrek batzuetan proiektu zehatz bati, tresna berezi bati, gehiegizko balioa ematera eramaten gaitu. European bakarrik teleirakaskuntzako 500 plataforma inguru daude (Sörderberg, 2000). Eta hala ere, eguneroko irakaskuntzan denak berdin jarraitzen du gutxi gorabehera.

Kontua ez da mugarik gabe teknologia berria asmatzea, baizik eta beritzea; hots, teknologia hori hezkuntza sisteman sartzea. Hori ez da arazo teknologiko hutsa, arazo sozioteknologikoa baizik. Eta kontuan hartu behar dira, noski, faktore soziala eta gizatiarra.

Artikulu labur honetan analisi txiki bat egin nahi izan da hezkuntza munduan teknologia berrien ezarpena aipatzen denean aintzat hartu behar diren faktore batzuen inguruan. Aldi berean, hipermediaren adibidetzat hartu da, teknologia horren ezaugarriek ehunka urte dituen unibertsitateko sistema zertxobait alda dezaketelako.

Hezkuntza teknologia “desteknifikatzearen” garrantzia azpimarratu izana espero dugu, hori egin behar baita “asmakuntza teknologikoa” “berrikuntza teknologikoa” izatera pasa dadin nahi badugu. •

## Bibliografia

- ASCOTT, R.: *Arte y educación en la era post-biológica*, Cibervisión 99 katalogoan, 1999.

- BORRÁS, I.: *Enseñanza y aprendizaje con la Internet: una aproximación crítica*, Hezkuntza teknologien liburutegi birtuala, 1997. [http://www.doe.d5.ub.es/te/any97/borras\\_pb/](http://www.doe.d5.ub.es/te/any97/borras_pb/)

- BRITAIN, S.; LIBER, O.: *A Framework for Pedagogical Evaluation of Virtual Learning Enviromental*, JTAP (JISC Technology Applications Program, 1999. <http://www.jtap.ac.uk/reports/html/jtap-041.html>

- CABERO, J.: *Navegando, construyendo: la utilización de los hipertextos en la enseñanza*, Hezkuntza teknologien liburutegi birtuala, 1995. [http://www.doe.d5.ub.es/te/any95/cabero\\_hipertext/](http://www.doe.d5.ub.es/te/any95/cabero_hipertext/)

- GARCÍA, J. J.; SAÉZ, F.: *WWM... & E?*, II. Multimedia Jardunaldietako aktak. Bartzelona, 2000ko uztaila.

- GARCÍA, J. J.; SAÉZ, F.: *The Way of Significant Innovation: When Gutenberg Became Nonlinear*, NAWeb 2001eko aktak. Frederickton (Kanada), 2001.

- GARCÍA, J. J.; SAÉZ, F.: *Constructivims in Web Based Learning Revisited: Explores with a Machete in a Hypermedia Rain Forest*, WebNet 2001eko aktak. Orlando (AEB), 2001eko urria.

- GARCÍA, J. J.; SAÉZ, F.: *Mind as a Target: Designing Full-Hypermedia Online Courses*, MTAC 2001eko aktak. Irvine (AEB), 2001eko urria.

- LARIOS, V.: “Constructivismo en tres patadas” *in* Gaceta COBAQ, 132. zenbakia, (1998 martxo-apirila), 10-13.

- PAPERT, S.: *The children’s machine: Rethinking schools in the age of the computer*, Basis Books. New York, 1993.

- SÖRDERBERG, U.: “Competence via the web” *in* Behaviour & Information Technology, 19. bilduma, 13. zenbakia, 229-232.

# kultura eta hizkuntza aniztasuna eskolan

## Omer Bertin Oke: *“Euskara jakiteak etorkinen integrazioa lortzeko aukerak ematen ditu, baina ez da giltzarri”*

Omer Bertin Oke jauna Eusko Jaurlaritzako Immigrazio zuzendaria da. Bere Zuzendaritzari zuzenean ez dagokio haur etorkinen hezkuntzaz arduratzea, baina Immigrazioari Buruzko Euskal Planaren (2003-2005) lan arloetako bat hezkuntza den aldetik, eta EAEko Immigrazio Buru gisa, badu zer esanik gai honetaz. Hala bada, elkarrizketa honen bidez, hezkuntza eta immigrazioaren arteko loturaren aurrean, bere ustez hartu behariko liratekeen norabideak zein diren, jada hartuak daudenen inguruan zer iriztzi duen, eta beste hainbat konturen inguruan hizketan aritu gara.



2003ko abenduaren 9an Immigrazioari Buruzko Euskal Planaren (2003-2005) Eusko Legebiltzarrean aurkeztu eta onartu zen. Plan honen helburu nagusia etorkin atzeritarrek euskal gizartearen erabat gizarteratzeko edota integratzeko aukera izatea da. Baina zuek zeri deitzen diozue integrazioa? Hau da, “integrazio” hitz horren atzean zer dago zuentzat, nola ulertzen duzue “integrazioa”?

Gure ustez “integrazio” kontzeptuaren atzean noranzko biko errealitate bat dago.

Orain arte, kasurik gehienetan, integrazio hitza asimilazioaren sinonimotzat erabili izan da; hau da, etorkin bat Euskal Herrira heldu eta bere kultura eta hizkuntza(k) alde batera utziz, euskara eta gaztelania ikasi eta, euskal kulturara moldatzen zenean, orduan, etorkin hori Euskal Herrian ongi integratua zegoela esaten zen. Guk, aldiz, hitz horren atzean ez dugu etorkinen kultura eta hizkuntzaren -edo hizkuntzen- bazterketarik ikusten; aitzitik, bi aldeek elkar errekonozimendua ikusten dugu, bertokoei eta etorkineei eskubide nahiz betebeharrak berdina izatea, espazio berean, elkar errespetatuz bizi den kultur eta hizkuntza aniztasuneko komunitate bat osatzea. Hala bada, zeinahi kultura edo ama hizkuntza izan, pertsona guztion berdintasunean sinesten dugulako eta, elkarbizitza positibo bat nahi dugulako, Immigrazioari Buruzko Euskal Planeko (2003-2005) lan norabide guztiak hori lortzeko begira daude.

### **Integrazio hori lortzeko Hezkuntza Sailak zer zeregin du?**

Hezkuntza Sailak betebeharrak handia du horretan. EAEn hainbat kultura eta hizkuntzatarako jendea bizi da, kasu askotan kultura nahiz hizkuntza batzue-

tatik bestetara oso jauzi handia dagoelarik. Hezkuntza sistemak errealitate anitz hori adierazi behar du. Hori dela eta, gure ustez, bai bere antolaketari begira, bai eta curriculumari begira, aldatu egin beharko lituzke euskal hezkuntza sistemak EAEn bizi den errealitate anitz horretatik hurbilago egoteko. Hezkuntzari begira, EAEn lan handia dugu oraindik egiteko. Hezkuntza sisteman gauzak aldatzea oso zaila izaten da, baina nahitaezkoa da bai sistema bai eta erabiltzaileon jarrera gizartean dugun errealitateara egokitzeko. Oraindik orain, Hezkuntza Sailak aldaketa horiek egiteko erreparatu gehiegi du, eta horregatik, bai gurasoei eta bai irakasleei aldaketa horiek eska ditzaten dei egingo nieke, orain arte egin dena aldatu oso arinei eta azalekoei baino ez baitagokio. Beraz, esan bezala, nire ustez Euskal Hezkuntza Sistema osoa birplanteatu behar da euskal gizartearen errealitate anitzaren isla izateko, eta oraindik orain, ezer gutxi egiten ari da.

### **Zein ikuspegitik uste duzue landu beharko lukeela hezkuntzak immigrazioaren gaia?**

Aipatu berri dudan moduan, ikuspegi kulturantzetik eta hezkuntza sistema osoa birplanteatuz.

### **Immigrazioari Buruzko Euskal Planean hamahiru lan arlo dituzue, eta horietako bat hezkuntzari dago. Arlo horrekin zer lortu nahiko zenukete? Haur eta gazte etorkinen integrazio akademikoa? Linguistikoa? Kulturala? Hirurak?**

Hezkuntza Sailari Immigrazioari Buruzko Euskal Plana aurkeztutakoan argi adierazi genion gisa, guk lan arlo horrekin hezkuntza komunitate osoan izan nahi dugu eragina; hau da, etorkinen benetako integrazioa lortu nahi badugu -gizarte kulturantz baten alde apustu egin-, hezkuntza sisteman parte hartzen duten pertsona guztiengana heldu behar dugu eta aniztasuna denekin landu (irakasle, ikasle, guraso, zerbitzu...). Mundu guztiak birplanteatu behar du orain arte bizi izan dugun errealitatea, gaur egun bizi duguna eta etorkizunean biziko duguna ez direla berdinak; eta beraz, aldaketak egin behar direla gizartean bizi den errealitatea eta hezkuntza batera joan daitezen. Guk argi eta garbi egin dugu hezkuntza kulturantz baten aldeko apustua, denek euren kultura eta hizkuntza identifikatu ahal izango duten gizarte anitz baten aldekoa. Gainera, hein handi batean, hezkuntzak markatzen du nolako gizartea nahi dugun, haur horiek izan-

go baitira geroa markatuko dutenak. Horrenbestez, gizarteko aniztasun hori hezkuntza sisteman eta hezkuntza komunitatean islatzen ez bada, ezer gutxi lortuko dugu gizarte kulturantz hori lortzeko borrokan.

### **Haur eta gazte etorkinen integrazioa lortzeko, kulturartekotasun eta sentsibilizazio arloetan ere hainbat lan norabide adierazten dituzue. Lan arloetako asko eskola orduetatik kanpoko ekintzei zuzenduta daude. Beraz, zuen ustez, haur eta gazte etorkinen benetako integrazioa lortzeko, zein faktore landu behar dira ikastetxean eta zein ikastetxetik kanpo?**

Gizarte kulturantz bat lortzeko, arestian aipatu bezala, Hezkuntza Sailari hezkuntza sisteman, curriculumean, eraldaketak egitea dagokio. Hala ere, eraldaketa fase horretan beste sailok ere badugu zereginik. Oraindik hainbat hutsune bete behar ditugu sentsibilizazio alorrean, eta horretarako, eskola orduetatik kanpoko denbora oso garrantzitsua da, orduan ikusten baitira argien ezberdintasun kulturalak eta linguistikoa.

### **Hizkuntza normalizazioari begirako lan arlorik ez duzue aipatzen Immigrazioari Buruzko Euskal Planean, baina bereziki kulturartekotasun eta hezkuntza arloetan, hainbat norabide daude haur eta gazte etorkinei euskara irakasteari begira. Hala bada, euskarak zein toki du zuentzat haur eta gazte etorkinen integrazioan? Hau da, uste al duzue egon daitekeela haur eta gazte etorkinen benetako integratzeak EAEn euskararik ikasi gabe?**

Kasu horretan kontuan izan behar dugu EAE hizkuntza normalizazio prozesu batean dagoela, eta beraz, haur horien integrazioari begira, euskara jakitearen garrantzia ez dela berdina izango leku batean edo bestean. Edonola ere, ikusirik bi hizkuntza direla ofizialak hemen (euskara eta gaztelania), etorkinen integrazioari






begira, aukera eta erraztasunak eman behar zaizkie bi hizkuntzok ikasteko. Bizi dugun errealtate linguistikoa dela-eta, gaztelaniaren jabekuntzan ez dute horrenbesteko arazorik izango, baina euskarak buruko min gehiago emango die gune euskaldunetan bizi ez direnei. Hori dela-eta, guk uste dugu haur eta gazte etorkinei euskara ikasteko errefortzuak eskaintzea zilegi zaigula.

Haur horien integrazioa eta euskara lotuta doazen ala ez galderari dagokionez, gure iritziz euskara jakiteak integrazio hori lortzeko aukerak ematen ditu, baina ez da giltzarri. Hau da, EAEn haur etorkinen integrazioa euskararik jakin gabe ere gerta daitekeela uste dugu, haur edo gazte etorkin hori bizi den ingurune linguistikoaren arabera. Hala ere, hemen beti euskara eta gaztelania hizkuntzen inguruan dihardugu, eta ahaztu egiten zaigu haur horiek badutela (badituztela) beraien ama hizkuntza(k), eta gure lana horiek mantentzea eta curriculumean kontuan hartzea ere badela. Hezkuntza Saitetik oraindik ez dira hori lan-tzen hasi, baina Planean guk jarrita dugu, eta uste dugu horren alde ere lan egin beharko genukeela.

**Hezkuntza Sailak Immigrazioari Buruzko Euskal Planean Hezkuntza arloan agertzen diren norabideetako baten barruan, "Ikasle etorkinak artatzeko programa" aurkeztu zuen 2004ko udaberrian. Zein iritzi duzue programa horren inguruan?**

Memento konkretu bati erantzuteko gogoz sortu zen eta horretan baino ez dela geratu uste dut. Hau da, guk, hezkuntza sistema osoa birplanteatu eta eraldatu behar dela uste dugu, eta aipatu programa helburu hori lortzeko elementu soil bat baino ez da. Funtsezkoena, oraindik orain, ez da aldatu.

**Gaur egun immigrazioaren fenomeno nola lekutzen/gauzatzen dela uste duzue hezkuntzan? Eta ikastetxeetan? Etorkizun hurbilean**



**nola uste duzue landuko edota tratatuko dela fenomeno hori? Zuen ustez, nola landu beharko litzateke?**

Orain arte Euskal Hezkuntza Sistema hezkuntza asimilazionistaren aldeko apustua egiten aritu da. Orain hezkuntza konpentsatoriorantz gozela esan daiteke; hau da, etorkinek gure sistemara egokitzeko dituzten hutsuneak betetzen ahalegintzen ari da Hezkuntza Saila, baina funtsean, ez du ezer aldatu. Gainera, Hezkuntza Saitetik ikusten dugun jarrera kontuan izanda, uste dugu, oraindik orain, gure helburuak urruti daudela. Guk hezkuntza kulturantz baten aldeko apustua egiten dugu, baina horrek denbora beharko duela uste dut.

**Bukatzeko, zer eskatzen diozu 2005. urteari?**

Espainiar estatuan hainbat etorkinek bizi duten egoera irregularra bukatzea, horrek eragin zuzena baitu etorkinen familia giroan, eta ondorioz, beraien seme-alaben egoera psiko-sozialean.

Guk argi eta garbi egin dugu hezkuntza kulturantz baten aldeko apustua, denek euren kultura eta hizkuntza identifikatu ahal izango duten gizarte antz baten aldekoa.

# ADI!!

Ikasle etorkinei  
euskara irakasteko  
proiektu eta  
material didaktikoen  
erakus-truke topaketaren

## II. SAIOA

Maiatzaren 6an Bilbon eta maiatzaren 7an Donostian

**Euskadin, Gironan, Bartzelonan, Valentzian, Galizian...  
etorkinei euskara, katalana, gailegoa... irakasteko  
erabiltzen diren material nahiz proiektuak erakusgai!**

**Eta... material didaktiko nahiz proiektu horiek sortzen ari diren  
Euskadiko, Gironako, Bartzelonako... zenbait irakasle gonbidatuk  
eskainitako materialgintza tailerrak!**

**Ez ezazu galdu!**

**Informazio gehiago:**

HIK HASIren apirileko alean edo itziaramayo@msn.com / bige@ehige.com

Bide eginean jarraitzen  
dugu zuen ekarpenekin  
eta parte-hartze  
handiagoarekin aberastu  
nahi dugularik.

Hik Hasi proiektua irekia  
den heinean, interesa  
duen edonoren parte-  
hartzea gustu handiz  
hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxo  
euskal hezkuntzaren  
aldeko ekimen honetan.



# Berriak martxoa

# Argitalpenak



## Euskal sukaldaritzaren antropologia

Edorta Agirre Alonso  
GAIK

Euskal sukaldaritza hiru alorretatik aztertzen du: historiatik (elikagaien bilakaera, dieta Erdi Aroan...), antropologiatik (auzolanaren osteko otorduak, solstizioaren inguruko ohiturak...), eta soziologiatik (arrain eskasian lehorreko ekoizpena, pintxoaren mistika...). Jan bitartean, janariak hitz egitea gustuko dutenezat •



## Ahulerio

Pello Añorga  
ELKAR


Aurelio, ahul eta dorpe sentitzen da. Horregatik deitzen diote Ahulerio. Gurasoak ere oso kezkatuta dauzka. Ahaleginak eta bi egingo dituzte mutikoa suspertzeko, baina alfer samar. Ustekabeko bat medio, Ahulerio Aurelio bihurtuko da berriro. Umorearen eta esajerazioaren bideari heldu dio Pello Añorgak, eta bide beretik doa Jokin Mitxelenaren ilustrazio lana •



## Astoa Historiako astorik ospetsuenak

Juan Manuel Etxebarria Ayesta  
IBAIZABAL

Gaurko mundu modernoan astoa historiara pasatu da. Baina lurtarren historian zehar astoak bere eginbeharra bete digu eta horrexen testigantza ematen du liburu entrenegarri honek. Astoa pertsonaiatzat hartuta, munduko hainbat kulturatako hizkuntza, mito, esaera, alegia eta abarretan sartu eta gozatzeko da liburu hau •



## Nire entziklopedia Animaliak TTARTTALO

Animalien mundu zabal eta erakargarria erakusten du liburu honek. Mari-sorgin arrari zer gertatzen zaion emearekin elkartzen denean, flamenko arrosak zergatik duen kolore hori, zein den orduko 110 km-ko abiadura har dezakeen animalia, zangak zer sistema erabiltzen duen arrainak harrapatzeko... Argazkiek gozatu ederra ematen diete irakurlearen begiei •



## Sakanako hezkuntza-gida D eredua: aukerarik onena SAKANAKO MANKOMUNITATEA, EUSKARA ZERBITZUA

Arabieraz, gaztelaniaz eta euskaraz idatzia dago Sakanako hezkuntza-gida. Haurrak D ereduan matrikulatzera animatu nahi ditu gurasoak Sakanako Mankomunitateak. Gidan ikastetxe guztien aurkezpena egiten da, arreta berezia emanez hizkuntza ereduiei. Gida eskuratu nahi duenak Sakanako Euskara Zerbitzuan eska dezake •



## Anne Franken egunkaria EREIN

*"Gauza guztiak esan ahal izango dizkizut, nik uste, orain arte inori ez bezala, eta laguntza handia emango didazula espero dut"* esanez hasi zuen bere egunkaria, 1942ko ekainaren 12an Anne Frank neskatok. 13 urte bete berritan eta lau hormaren artean idatzi zuen, gutxik bezala, bizitzaz. Kanpoan, Gestapo, izuaren mendea; bere baitan, askatasuna. Josu Zabaletak itzuli du euskarara •

# 2004-07 urteetarako Lanbide Heziketako Euskal Plana aurkeztu du Eusko Jaurlaritzak

Lanbide Heziketako Euskal Plana aurkeztu berri du Eusko Jaurlaritzak, eta 2004-07 urte bitarteko helburuak eta ildoak finkatzen dira bertan.

Plana Donostiako Kurasaalen aurkeztu zuten Juan Jose Ibarretxe lehendakariak eta Anjeles Iztueta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak. Lanbide eskoletako 600 lagunetik gora bildu ziren bertan, azalpenen eta bideoen laguntzaz planaren nondik norakoak ezagutzeko. Horiekin batera, Holandako, Alemaniako, Frantziako eta Argentinako hezkuntza arduradunak bertaratu ziren.

Hasteko, azken urteotan EAEko Lanbide Heziketan eman diren aurrerapausoak izan ziren aipagai. Hemengo enpresen lehiakortasuna eta aurrerapena areagotzeko, Lanbide Heziketa gero eta garrantzi estrategiko handiagoa hartzen ari dela nabarmendu zuen Juan Jose Ibarretxe lehendakariak. Horrekin batera, hemengo profesionalen ezagutzak eta gaitasunak hobetzea lortzen ari dela ere bai.

1997an jarri zen Lanbide Heziketako Euskal Planarekin hainbat hobekuntza lortu dira, eta besteak beste ikastetxeek eta ikasleek enprekin lortu duten harremana azpimarratzen da. Errealitate sozial eta ekonomikora egokitzen asmatu da, eta gaur egun ikasle gehienek lanpostua lortzen dute lanbide ikasketak amaitu ostean (2002an % 81 lanean hasi zen). Enpresak ere gustura daude ikasleen kualifikazio mailarekin; % 96k dio etorkizunean horrelako profesionalak kontratatzearen alde dagoela.

Lanbide Heziketa heziketa zikloen arabera antolatzeak ere aldaketa ekarri zuen, eta positiboa izan dela azpimarratu duten arduradunek, besteak bes-



Juan Jose Ibarretxe eta Anjeles Iztueta 2004-07 Lanbide Heziketako Euskal Planaren aurkezpena egiten Kurasaalen.

te, eskakizunetara hobeto egokitzeko balio izan duelako.

Lanbide eskolek eman duten erantzuna bikaina izan dela azpimarratzen da. Horren erakusgarritzat aipatzen da 2 ikastetxek Urrezko Qa lortu izana (500 EFQM puntu), 19 ikastetxek Zilarrezko Qa (400 EFQM puntu), 38 ikastetxek ISO 9000 ziurtagiria, 14 ikastetxek 300 EFQM puntuak, ikastetxe batek ISO 14000, eta beste 10 azken hori lortzeko fasean egotea.

Hurrengo urteetako planaren helburua orain arteko egiturak eta jarduerak hobetzea da. Horretarako, lau esparru estrategiko zehaztu dira:

- 1- Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Sistema Integratua eguneratzea eta hobetzea.
- 2- Kalitatea garatzea eta bermatzea sustatuko duten jarduerak eta helburuak zabalitzea.
- 3- Berrikuntzari lotutako kultura dinamizatzea.
- 4- Informazioaren eta komunika-

zioaren teknologien erabilera sustatzea eta dibertsifikatzea.

## Ikastetxeak omendu dituzte

Lanbide Heziketako Euskal Planaren (2004-07) aurkezpena aprobetxatuz 112 ikastetxe publiko eta itunpeko omendu zituzten. Egiten ari diren hezkuntza lana garrantzizkotzat jotzen da, eta horrexegatik eskertu nahi izan zaie ahalegin eta jarduerari.



## III. Mintegia Hezkuntza Etorkinekin. "Kulturarteko bizikidetza eskolan"

Martxoak 11, ostirala  
Donostian, Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakulteko areto nagusian.

Informazio gehiagorako: Graduondoko idazkaritza (lehen solairua. Tel: 943 018 241). E-posta: cite@sc.ehu.es

## Hezkuntzarako bideo digitalaren I. lehiaketa

Gipuzkoako Berritzeguneek antolatutako lehiaketa honetan Gipuzkoan kokatutako edozein ikastetxek parte hartu ahal izango du. Gaia librea izango da, baina ikasleak aurten lantzen ari diren curriculumeko gairen baten ingurukoa izan behar du. Ikastetxe bakoitzak gehienez hiru bideo aurkez ditzake; euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez.

Lanak aurkezteko epea: apirilak 20  
Informazio gehiagorako:  
Gipuzkoako Berritzeguneetan  
[www.elkarrekin.org](http://www.elkarrekin.org)

# Martxoaren 10a, Euskal eskola aldarrikatzeko eguna

## Hainbat ekitaldi antolatu ditu EHBE herri ekimenak



Euskal Herriak Bere Eskola (EHBE) herri ekimenak bost puntuko Aldarrikapen Taula zabaltzea du helburu. Horretarako, martxoaren 10ean hainbat ekitaldi antolatuko ditu Euskal Herri osoan.

Hiru urte dira EHBE herri ekimena sortu zela, eta ordutik Euskal Herriko hezkuntza sistema propio baten aldeko herri mugimendua sortu nahian ari dira lanean. Etorkizunerako bost helburu nagusi zehaztu dituzte, Aldarrikapen Taulan biltzen direnak. Horiek helarazteko, herri hainbat ekitaldi antolatu dituzte, ikasleen, irakasleen eta gurasoen parte-hartzea bultzatu asmoz. Txokolatadak, atsedendietan kontzentrazioak, arratsaldetan ekitaldi kulturalak eta beste hainbat ekimen izango dira.

### Aldarrikapen Taula Haur Hezkuntza

Haurrak haur denetik jaso behar du hezkuntza egokia euskaraz. Beharrezkoa da 0-6 urte arteko haur eskola hezitzailea, herritarren eskariak asetzen dituen eta euskalduna izatea.

### Derrigorrezko Hezkuntza

Ikasle guztiek dute euskara ikaste eskubidea; Hezkuntza sistemak Derrigorrezko Hezkuntza amaitutakoan 16 urteko gazte guztiek euskaraz aritzeko gaitasuna izatea bermatu beharko luke.

### Euskal curriculuma

Derrigorrezko Hezkuntza amaituta herritar guztiei bermatu behar zaizkie

oinarrizko ezagutza, gaitasun edo eduki batzuk. Horretarako, behar-beharrezkoa da euskal curriculuma.

### Lanbide Heziketa

Gaur egun euskararen presentzia oso-oso urria da Lanbide Heziketan, ia ia hutsaren hurrengoa. Beharrezkoa da eskola horiek guztiak euskalduntzea, gerora ikasle horiek lan mundua ere euskalduntzeko.

### Euskal unibertsitatea

Gaurko unibertsitateetan euskaldunen eskubideen alde lan egin beharra dago, borrokatu beharra dago, baina, era berean, beste proiektu autonomo eta independente bat beharrezkoa da: euskal unibertsitatea.

# Hizkuntza aniztasuna eta elkarbizitza aztergai Ikastolen Elkartearen jardunaldietan



Aurten Ikastolen Elkartearen jardunaldi pedagogikoak desberdinak izango dira. ISLRF Frantziako Hizkuntzen Goi Mailako Institutuarekin batera antolatu ditu. ABCM, Alsazia, Diwan, Bretainia, Calandreta, Okzitania, Bressola, Katalunia eta Euskal Herria dira hizkuntzen institutu hori osatzen dutenak.

Jardunaldiei jarri dieten izenburua hau da: **“Murgiltze ereduaren ekarpena europar hiritartasunaren erakuntzan”**. Hiru egunetanzehar burutuko da honako egitaraua:

## **Apirilak 14, osteguna**

### **Europako hizkuntzen berreskurapena. Zertan gara?**

9:00 Hasiera ekitaldia

9:35-11:00 Murgiltze ereduko esperientzien aurkezpena: Euskal Herria, Okzitania, Katalunia, Bretainia eta Alsazia.

11:05-11:30 Atsedenaaldia.

11:35-12:30 “Europako hizkuntzen berreskurapenetik eleaniztasunera: hizkuntz murgiltze didaktikaren ekarpena”, Josep Tió, VICeko Unibertsitateko Hezkuntza Fakultateko Hizkuntza Didaktikaren irakaslea.

12:35-14:30 Bazkaria.

14:35-16:30 “Hizkuntzen irakaskuntza eta hizkuntzen etorkizuna ikuspegi holistikotik”, Pilar Sagasta, Matilde Sainz eta Julen Arexolaleiba, HUHEZI-ko irakasleak.

16:35-17:00 Atsedenaaldia.

17:05-18:00 Galderak eta eztabaida.

## **Apirilak 15, ostirala**

### **Nola indartu gure hizkuntzen erabilera?**

9:00-11:00 “Eskola garaiko euskal curriculum: aurkezpena”, Xabier Garagorri, Ikastolen Konfederazioko aholkulari pedagogikoa.

11:05-11:30 Atsedenaaldia.

11:35-12:30 “Eskola garaiko euskal curriculum: hizkuntza eta literatura”, Itziar Elorza, Ikastolen Konfederazioko hizkuntza aditua eta ikasmaterialgintzaren hizkuntza arduraduna.

12:35-14:30 Bazkaria.

14:35-14:55 “Euskaraz Bizi proiektua: aurkezpena eta Iparraldeko ikastolen gauzatzea”, Aitor Sarasua, Euskaraz Bizi proiektuaren arduraduna Seaskan.

15:00-15:25 “Euskal Soin Jarduera proiektua: aurkezpena eta Iparraldeko ikastolen gauzatzea”, Ellande Alfaro, ESJren arduraduna Seaskan.

15:30-15:55 “Bertsolaritza proiektua: aurkezpena eta Iparraldeko ikastolen gauzatzea”, Maialen Hiribarren, Bertsolarien Lagunen Elkarteko kidea.

16:00-16:30 Alemania eta Alsaziaren mugaz gaineko harremanak, Christine Cartier, ABCMko kidea.

16:35-17:00 Atsedenaaldia.

17:05-18:00 Galderak eta eztabaida

## **Apirilak 16, larunbata**

### **Europako hizkuntzen berreskurapena eta hizkuntz eskubideak.**

9:00-9:15 “ISLRF: gure hizkuntzen egora politikoa”, Jean Louis Blenet, ISLRFko lehendakaria.

9:20-9:50 “Hizkuntza gutxiagotuen sustapena eta defentsa Bruselatik”, Johan Haggman, Hizkuntza gutxituen Europako bulegoko proiektuaren arduraduna.

9:55-10:40 “Quebec-en frantsesaren alde garatutako hizkuntza politikaren aurkezpena”, Nicole Rene, lehendakari zuzendari orokorra Quebec-eko frantses hizkuntzaren bulegoan.

10:40-11:10 Atsedenaaldia.

11:15-12:00 “Generalitateko hizkuntza politikaren aurkezpena”, Josep Vallocorba Cot, Generalitateko Hizkuntza Saileko hizkuntza eta kohesio sozialaren zuzendariorde orokorra.

12:00-14:00 Bazkaria.

14:00-14:15 “ISLRF: gure hizkuntzen egora politikoa”, Jean Louis Blenet.

14:20-15:15 “Eusko Jaurlaritzako hizkuntza politikaren aurkezpena”, Miren Azkarate, Kultura sailburua.

15:20-16:15 “GIP, Interes Publikoko Elkargoaren aurkezpena”, Max Brisson, Kontseilu Orokorreko lehendakariordea eta IPEko lehendakaria.

16:20-17:00 “Ipar Euskal Herrian euskararen berreskurapen euskalgintzaren proiektuen aurkezpena”, Mixel Etxeverry, Euskal Konfederazioko lehendakaria.

17:05-18:00 Galderak eta eztabaida.

**Matrikula epea:** martxoak 30

### **Informazio gehiagorako:**

Seaska (Irene Sainte Marie)

Tel.: 0033 (0)559 52 49 24

E-posta: seaska@ikastola.net

Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa (Olatz Argatxa)

Tel.: 0034 94 630 05 69

E-posta: ehik@ikastola.net

www.ikastola.net

# Muga guztien gainera ...euskaraz!

## Ahozotasuna lantzen

### Amezketako Zumadi herri ikastetxea

Amezketan ondo jabetuta daude bertako hizkerak zer bizitasun duen, zer esamolde aberatsak dituen eta noraino den herriari nortasuna ematen dioa. Herriko hizkera horri zabaldu nahi izan dizkiote atsek, eta balioa eman. Ahozotasuna lantzeko, hizkuntzako eskolatan testu liburuak utzi eta testu lanketari ekin diote. Antzerki tailerra ere propio eginen dute helburu berarekin. Haurrek etxetik eta herritik dakarten hizkuntza kalitate horri eustea da kontu handiz zaintzen dutena.

Ikastetxeak ia 100 haur biltzen ditu, herriko ez gain Abaltzisketa eta Bedaiotik etortzen direnak. Haur eta Lehen Hezkuntzako zentroa da, eta 11 irakasle daude. Irakasle talde egonkorra da, eta erdiak baino gehiago bertakoak edo inguruko herrietakoak dira, bertako hizkera gelan lantzeko garrantzitsua dena.



Hiru urteko mutikoak hika patioan. Haurren esamoldeak entzunda, behin baino gehiagotan harritu izan da Agustin Amiano irakaslea: *"Hau ez duk, bada, herri askotan entzungo!"* Aitona-amonekin ere harremana badutela nabari omen zaie haurroi. Hizketarako abildade berezi hori bizi-bizirik dute. Ez zen kasualitatez Fernando, amezketarra.

Herrian eta etxean modu naturalean jaso duten kalitatezko hizkera horri

eskolan lekua egitea da Zumadi ikastetxearen erronka. Eskolan ere Amezketako hizkeran jardun behar dutela argi dute, eskola herriaren parte izango bada behintzat, eta ez batu hutsean airtzen den burbuila isolatu bat. Amezketako hizkera balioestea, eta etxetik dakarten hizkuntza kalitatea are gehiago zorroztea, horietan helburuak.

#### Testu lanketa

Ahozotasuna lantzeko, duela zazpi bat urte Nemoskyren pentsaerara egokitu zuten hizkuntza ikasgaia. Hala, testu liburuak utzi eta testu lanketan oinarritzen dute ikasgelako jarduna. Urtean zehar hainbat testu mota lantzen dituzte.







### Adibide

gisa, pentsa ipuina landu behar dutela: etxetik ipuinak ekartzetik abiatzen dira (ustez ipuinak direnak ekarri behar dituzte). Gelan horiek denak irakurri eta aztertzen dituzte, azkenean ondorioztatzeko zein diren ipuinak eta zein ez, zer ezaugarri diren ipuin egiten dituztenak. Behin norbera gai sentitzen denean halako testu bati ekiteko, bigarren urratsa dator: norberak sortzea. Haurrei denbora bat ematen zaie, eta behar duten laguntza, bakarka ipuin bat idazteko. Txukundu, garbira pasa... *“baina horez da bukatzen -azpimarratzen du Agustinek-, gero ipuin hori eskaini egin behar da. Lehen idaztearekin kito egiten zen, ipuina paper batean gelditzen zen eta ezzuen inolako funtziorik. Orain testu idatzi hori jendearen aurrean esan behar dute; ikasleak beti ikusi behar du garbi zer helbururekin ari den lanean, norako ari den sortzen”*. Ipuina hainbat ikasgelatan kontatuko dute, baita etxean ere. Baina hori bai: herriko hizkeran kontatu behar dute. Paperean batuan idatzita duten hori, Amezketa-ko hizkeran esan behar dute. Agustinek azaldu digunez, *“lehenengo mailatan kosta egiten zaie herriko hizkerara pasatzea, baina gero automatikoki egiten dute, eskatu beharrik izan gabe”*.

Testu lanketarekin oso gustura daude. Batetik, ikasleek zentzu bat ematen diotelako gelan egiten duten lanari. Bestetik, ahozkotasanari duen garrantzia eta behar duen lekua ematen diolako (lana ez baita bukatzen testu bat idaztean, paperekoa errealitateko egoera batean gauzatzean baizik). Gainera hizkuntza erregistro askotarikoak lantzeko bide ematen dute testuek.

### Testu liburu-

#### etatik ihes

*“Beldurrez abiatu ginen —kontatzen du Agustinek hizkuntzan testu liburuak bazterrean uztea erabaki zutenekoaz gogoratzean—, liburuak sekulako babesa ematen du. Gero gehiegi heltzen diozu eta ito egiten zaitu igual, baina babesa ematen du”*. Testu liburuaren ajeez jabetuta zeuden, ordea: *“Askotan ez zaie ikusten helbururik, irakasleak ez daki benetan zergatik lantzen duen liburu hori; liburu hartu duzu eta segi beharra dago, bukatu arte, eta gainera kapituluek markatzen duten ordena berean. Eta, liburu aurrean daukazula, ‘ahozkoa lantzen dugu’ esaten da, baina gezurra, ez da lantzen; galderak eta erantzunak liburuan dauden bezala irakurtzea ez da ahozkoa lantzea”*.

Sorgin gupil horretatik atera nahi zuten, zerbait biziagoa egin, haurrari gehiago esango ziona, eta testu lanketara jo zuten. Liburu ezak sortzen duen segurtasun eza prestaketarekin goxatu zuten. Oso ondo zehaztuta dituzte testuen lanketarako zer pauso eman behar diren, zer ariketa posible dauden, edota nola ebaluatu haur bakoitzaren lana (ez dute azterketarik egiten, ikasleak prozesu osoan zehar egindako lana da baloratzen dutena). Prestakuntza horrek guztiak, ikasgelaz kanpo ere lana egitea eskatzen die irakasleei; asteazken arratsaldeak horretarako hartzen dituzte, eskolako egutegian betidanik halaxe zehaztua baitute. Ikasleek ez dute eskolarik, eta irakasleek formazioerako eta talde lanerako baliatzen dute.

Testu lanketak beste dinamika bat sortzen du gelan; baina errealitate berri

hori baloratzen ere ikasi beharra dago gero, ez baita hainbeste “ikusten” den lana: *“testu lanketarekin ematen du ez duzula hainbeste egiten, ez delako hainbeste idazten. Idatziarekin paper mordo pilatzen da, baina ahozkoa ez da ikusten. Horregatik, gurasoei ere esplikatzeko jakin egin behar da, zer eta nola ari garen, bestela berealdiko talka izan daiteke eurentzat ere”*. Ahozkotasan egindako lana ikusi, ez da ikusten foliotan, baina gero ederki igartzen omen da. Hala esaten diete, behintzat, DBH egitera Alegiara doazenean, hango irakasleek. Bestetik, haurrok deklamazioan trebatuta daude jada urtean zehar egindako lana medio, eta horregatik urtero parte hartzen dute Barriola deklamazio sariketan (baita sariak jaso

**Egoera pribilegiatua sentitzen dira Amezketa-ko eskolan, haurrek etxetik dakartelako hizkera aberatsa. Hitanoa indartzea da euren erronka.**





ere).

### Antzerki tailerra

Adin desberdinetako haurrak nahasian taldekatzen dituzte tailerrak egiteko. Horieta bat da antzerki tailerra. Haur guztiak pasatzen dira, urtero, antzerki tailerretik; horregatik, bost saio besterik ez ditu talde bakoitzak antzezlana bat prestatzeko. Bost saio horietan taldeari testu bat eskaintzen zaio (denborarik ez baita testua taldeak berak sortzeko); hura irakurri, pertsonaiak banatu eta testua ikasten eta entseatzen hasten dira. Bosgarren saioaren ostean, antzerkia eskaini egin behar dute, eskola osoaren aurrean. Bi urtekoak ere etortzen dira antzezlana ikustera, beraz, txiki-txikitatik hasten dira urtean dozena erdi bat antzerki ikusten. Eta antzerkian erabiltzen den hizkera ere bertakoa da, non eta ez den pertsonaia bereziren bat, beste hizkuntza erregistro bat ezarri zaiona propio.

### Egoera pribilegiatuan

Hala sentitzen dira Amezketa Zumadi ikastetxean. Ez dira eskola asko izango familia ez euskaldun bakarra daukatenak ikastetxe osoan. Eta gutxi dira euskara hutsean bizi diren herriak. Gutxi, kalitatezko hizkera aitona-amongandik modu naturalean jaso dezaketenen haurrak. Egoera “pribilegiatuek” ere badute arriskua, ordea: bere horretan uztea, zorrozten segi beharrean. Arrisku horretaz ederki jabetuta dago Agustin: “*Tristeza litzateke 'ba' euskaran ondo gaude eta matematikan edo ingelesean egingo dugu ahalegin bere-*

*zia' esatea. Denari heldu behar zaio. Eta beti badago zer hobetua*”. Hitanoa indartzea da euren erronka berrietako bat. Mutilen artean erabat egiten baitute hika, baina neskekikoa ia galdu da (ez mutilek eta ez neskek ez dute egiten noka).

Egoera pribilegiatu horren beste ondorioetako bat da, erabat naturala, haurrek gaztelania ez hain ondo menperatzea. Euskara hutsean bizi diren seinale da hori, eta erabat normalizat, naturalizat hartu behar litzateke duten gaztelania maila, baina konplexuz bizi-tzen omen dute askotan. Haurrei lotsa ematen die, baita gaztelaniako eskolan ere, erdaraz egiteak. “*Gurasoek ere kezka agertu izan dute. Seguru asko, guraso batzuek (eta aitona-amonek oraindik eta gehiago) bizi izan dira ezintasun horretan, inora joan eta 'euskalduna izango ahal da...' , bestela*

*larri. Eta ez dute halako sentsaziorik nahi beren seme-alabentzat, normala da. Hor dago gure lana; etxeak, herriak, giroak eskaintzen ez dien hori guk eskaini behar diegu nolabait*”. Horregatik, gaztelanian ere ahozkotasunari ematen diote lehentasuna, erdaraz jariora lortzeari. Egunero, lehen orduan, gaztelaniaz elkarriketan jarrarazten dituzte ikasleak, etxean bildutako albisteak aitzakiatzat hartuta. Bitartean, Euskal Herriko eskola gehienek buruhaustea da, zer arraio egin, haurrek euskaraz hitz egin dezaten. •

**Agustin Amiano:**  
**“Ahozkotasuna lantzeko, testu liburuak utzi eta ikasgelako jarduna testu lanketan oinarritzea erabaki genuen. Liburua aurrean dugula ‘ahozkola lantzen dugu’ esaten da, baina gezurra da”.**



# Ale monografikoak

1) Irakurketa eta idazketa konstruktibismoaren ikuspegi-tik (agortuta)



2) Marrazki ekoizpenaren bilakaera  
3) Baloreak irakaskuntzan



4) Atxikimendua  
5) Vigotski

14) Jorge Oteiza  
13) Jerome Seymour Bruner  
12) Heriotza heziketan

6) Afektibitatea eta Sexu Hezkuntza  
7) Kohlberg



8) Hizkuntza idatzia eta ikasleen aniztasuna  
9) Etorkinak gure eskolan



10) Antzuola herri ikastetxearen proiektua  
11) Howard Gardner



zt\_ h zk r

z t k usk r tr n tu r n tz  
z t k n r n rr tx

Zeměpisná úroveň zt\_ h zk r n r n r - 7 r l k - 7  
n r z t\_ h r k G L n h u n n t z e k n r y h u k n t z e n r z l  
n r y l t r n r h f n r z t\_ h r k - 7 3 27 - 33 t l f n r s r t l o w w w . s r t l o w w . c z

rt l tz l k



sl k

